

# Kontzeju

www.oñati.eus



Berbia Oñati



@BerbiaOñati



Boletina




Oñati Irratia

Oñatiko Udal aldizkaria | 2016ko Abendua | 267. zenbakia



# DELIA




# OLARAN PAISAIA

Olaran erreka inguruko berdeguneak indarberritzeko plangintza egin du Udalak



# BERDEGUNEAK INDARBERRITU

» Olanan erreka inguruneako berdeguneak (**Eltziakoa**, **Olakuako dorre parekoa**, **Natur Eskola**, **Aldakiño basoa** eta **San Martin auzoko jolas parkea**) biziberritzeko plangintza landu du Udalak, Iñigo Segurola paisajistaren laguntzarekin



Olanan erreka inguruan dauden berdeguneak biziberritu egin nahi ditu udal gobernu taldeak, orain arte baztertuta egon den Olanan errekarri dagokion protagonismoa eta garrantzia emateko asmoz.

Helburu horrekin, Olanan erreka ardatz hartuta, San Martin, Olakua, San Lorenzo eta Ugarkalde auzoetan dauden bost parke biziberritzeko plangintza prestatu du EH Bilduk, Iñigo Segurola paisajista (LUR Paisajistak) ezagunaren laguntzarekin. Espazio berdeen tematizazioa bultzatzea da asmoa, berdegune bakoitzaren ezaugarriak eta potentziala garatuz, eta bi irizpide nagusi kontuan hatuz: jasangarritasuna eta prozesu ekologikoak bultzatzea.

## HELBURU SOZIALA, EKOLOGIKOA ETA ESTETIKOA


Hiru helburu nagusi ditu berdeguneak indarberritzeko plangintzak: herritarrei aisialdirako aukera berriak eskaintzea (helburu soziala); prozesu ekologikoak eta, bereziki, urarekin lotutako ekosistema aberatsak sortzea (helburu ekologikoa); proposatzen diren interbentzio guztietan estetika propioa eta eguneratua lortzea (helburu estetikoa).

Ondorengo orrietan azaltzen dugu berdegune bakoitzerako proposatzen den interbentzioa.

Iñigo Segurola paisajista ezagunak egin du berdeguneak biziberritzeko proiektua

## “Olanan Paisaia”



proiektuaren azalpena  
Abenduak 13, asteartea.  
19:00ean Kultur Etxean



## ‘OLARAN PAISAIA’

proiektuaren azalpena abenduak 13, asteartea  
kultur etxean, 19:00, herritar guztiei irekia

# Ur jokoetarako eta ariketa fisikoa egiteko guneak



Eltzia (ETEO zaharra) aurreko parkean bi zonalde desberdin sortzea proposatzen da: ur jolas eta zorrotada gunea, batetik, eta pertsona helduek ariketa fisikoa egiteko gunea, bestetik.

Gaur egun berdegune horretan dagoen zuhaitz helduen masa bere horretan mantentzea proposatzen da. Horrek, jakina, interbentzio eremua mugatzen duenez, azalera erabilgarria handitzeko asmoz Ugarkaldera doan errepidearen sekzioa murriztea proposatzen da (bidearen alde bietan dauden aparkaleku ilarak eta espaloietako bat kenduko lirateke), parkearen azalera handituz.

## UR JOKOEN GUNEA

Ondoko planoak erakusten duen moduan, parkearen ekialdean (Ugarkalde aldera), ur joko gunea egokitzea proposatzen da. Hiru ur tanta irudikatzen dituzten hiru gune izango lirateke, ur zorrotada eredu ezberdinekin.



Lurzorutik irteten diren ur zorrotadak izango dira, batez ere. Ur tantaren eta ur uhinen ideia indartzeko, asfalto gainean zirkulu txuri kontzentrikoak margotuko dira.

Ur jolasen gune hauen ingurua asfaltatuta egongo da, eta jolaserako nahiz etzanda egoteko balioko du. Gainera,

berdegunean eserlekuak eta mahaiak ipiniko dira, eta bertako zuhaitzen gerizpean 'piknik' egiteko gune ederra izango da.

## ARIKETA FISIkoa EGITEKO GUNEA

Parkearen beste aldea (San Lorentzo aldera) zelai moduan antolatzen da, irekia, zuhaitz gabea. Zelaia inguratzen eta mugatzen asfaltozko oinezkoen bidea egongo da, eta bide honen gune zabalenean kirola eta ariketa fisikoa egiteko tresnak jarriko dira.


Bestalde, Ugarkaldera doan errepidearekiko barrera funtzioa egingo duten zuhaixkak eta landare bizkorak landatuko dira, uda garaian urdin kolorez loratuko direnak eta loraldi oparoa eskainiko dutenak.

Gainera, parkea eta Lazarraga kalea bereizten dituen orman etendura bat egin eta eskailera batzuk egokitzea proposatzen da, Lazarraga kaletik zuzenean parkera sartzeko aukera sortuz (ikusi planoak).


**AURREKONTUA: 496.967 €**



## Ur ertzeko landaredia eta animalientzako gunea



**AURREKONTUA: 176.959 €**



Olakuako dorre aurrealdean dagoen kirol gunea bere horretan mantendu, eta honen inguruan dauden beste bi eremuak (berdegunea eta ahateen ur putzua) batuz, espazio bakar bat sortzea proposatzen da.

Txantxikuak, sorgin orratzak, apoak eta beste hainbat animalientzat aproposa izango den ur putzua eta padura sortzea da asmoa. Horretarako, beharrezkoa da ur azalera handitzea eta batik bat ur ertzetako landaredia garatzeko baldintza egokiak bermatzea.

### BI UR PUTZU BERRI

Helburu horrekin, gaur egungo estankearekiko perpendikularrak diren bi ur putzu berri sortzea proposatzen da, berdegune eremua eta estankeak lotuz.

Berdeguneko lur maila jaitsi egin beharko da, estankean dagoen ur sarreraren kota baino beherago. Gaur egun berdegunea eta estankearen artean dagoen oinezkoen bidea desagertu egingo da, eta mantendu egingo dira estankeak zeharkatzen duen harrizko zubia eta honi jarraituz kirol gunera doan bidea.


Ur putzu berriek ez dute 50 zm. baino sakonera handiagorik izango, eta hauen ertzetan paduretako landaredia landatu eta garatu ahal izateko beharrezkoak diren lur sail bustiak sortuko dira.

Urak putzu batetik besterako bidea egingo duenez, uraren abiadura moteldu egingo da, eta horri esker urari atxikituta sortzen den bizitza garatzeko baldintza egokiak emango dira.





## Natur Eskola bisibilizatzea



**AURREKONTUA: 70.322 €**



Natur Eskola hartzen duen eraikina zaharkituta dago, eta hainbat berriztapenen beharra dauka. Baina, horrez gain, nahiko ezkutuan geratzen da eta, beraz, eskola bera bisibilizatzeke hainbat ekintza proposatzen dira plangintza honetan.

Olakuako dorrearen atzetik igarotzen den errepidean hasiko litzateke interbentzioa, ondoko irudian ikusten den moduan. Natur Eskolara doan bidearen hasieran albo bietako aparkalekuak kendu, eta oinezkoen pasabide erraldoi bat sortzea da asmoa. Asfaltoan zebra-bide moduko bat marrazten da, baina marrek norabide eta zabalera ezberdinak izango dituzte. Zebra bide alternatibo honek Natur Eskolarako bidea erakutsi eta nortasunez janzten du.

Marra zuriez gain, bertikaltasunean ere deigarritasuna bilatzeko asmoz, han-hemenka 10-12 metroko luzera izango duten akazi enborrak jartzea proposatzen da.

Natur Eskolako atean akazi enborrak altzairuzko kablez lotuko dira, pergola moduko egitura sortuz, eta landare igokariekin estaliko da. Pergola atipiko honek ere nortasuna erantsiko dio eskolari.


Natur Eskolaren atarian dauden bi transformadore elektrikoaren kasetetan grafiti berriak eta deigarriak egitea proposatzen da. Bestalde, Aldakiño basoa mugatzen duen paretaren kontrako berdegunean ur putzu txiki eta luze bat eraikitzea proposatzen da, menditik etortzen den ura aprobetxatuz. Paduretako hainbat landaketa eginez, baliabide berria sortuko litzateke.

Azkenik, eskolako atariko zoladura aldatu, eta bertan dauden haritzen ordez frutarbolak landatzea proposatzen da, haritzek gehiegizko hedapena izango dutelako epe motzean.


Natur Eskola ikusgarri egiteaz gain, Aldakiño basorako eta San Martin auzora igotzeko ate moduko bat sortuko litzateke aktuazio honen bidez.



## Basoaren berezko indarra balioan jarri



**AURREKONTUA: 18.036 €**



**AURREKONTUA: 15.795 €**

Olakua eta San Martin auzoen artean dagoen Aldakiño basoa bere horretan mantentzea proposatzen da. Azken urteetan ez da mantenu lanik egin bertan, eta horrek baso azpiko landaredi oparoaren garapena baimendu du. Ondorioz, basoak itxura narratsa du gaur egun, baina horren atzean bioaniztasun handia gordetzen da, Oñatiko Naturzaliak taldeak egindako ikerketa eta inbentarioan jasota geratu den moduan. Sastraken atzean mota askotako animali eta landareek aurkitzen dute babeseta eta gordelekua.

Beraz, basoak duen basati izaera mantenduz, basoaren berezko indarra eta baloreak goraipatu eta indartu nahi dira, herri gunean dagoen gunea hau altxor bihurtuz.

### PUTZUBOROBIL

Bi aktuazio txiki proposatzen dira Aldakiño basorako. Alde batetik 10 metroko diametroa izango duen putzu bat egitea, Natur Eskola eta Ugarkalde lotzen dituen bidean (depresio txiki bat dagoen gunean). Euri urekin beteko litzatekeen putzu honen helburua ugaztunen ugalketa bideratzea da. Horretarako, putzua ezingo da zakur eta pertsonen eskura egon, bestela bertako animaliak uxatuko litzukete, eta putzuak ez luke beteko bere osotasunean bioaniztasuna indartzeko funtzioa.

Beraz, pertsonen eta zakurren irisgarritasuna mugatzeko, putzuaren perimetroan zutikako egurrezko esola zilindrikoak jarriko dira, basoko esperientzia osatuko duen interbentzio artistiko bilakatuz.

### BURDINITURRI

Aldakiño basoa zeharkatuz, Natur Eskola eta Ugarkalde lotzen dituen bidearen karobi bat eta burdin iturri bat daude, besteak beste. Eta hain zuzen, aktuazio xume eta bitxia egitea proposatzen da, burdin iturriaren bereizgarritasuna indartzeko.

Kontuan hartuz, burdin ura hormigoizko azalera baten gainetik igarotzean herdoil kolorez tindatuta uzten duela, iturriaren behealdeko zelaian hormigoiz egindako terratzatxo eskalonatuak eraikitzea proposatzen da. Terrazei pendiz minimo bat emanez, ura terraza batetik bestera pasako da, eta hormigoian intentsitate desberdineko herdoil trazak irukikatuko dira.



M<sup>a</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea  
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

## HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK  
PERSIANAK, LEHIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA


SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77



## Plaza berdatu eta jolas gune alternatiboa sortu



San Martin auzunerako bi proposamen landu ditu LUR Paisajistak enpresak. Alde batetik auzoko plazan dagoen jolas gunean azalera berdeak handitzea proposatzen da. Diametro ezberdineko lau zirkulu berde berri sortuko lirateke (ondoko planoan ikusten den eran), gaur egun plazak daukan izaera gogorra berdatuz.

Belarraz gain, zirkulu bakoitzean gereziendo ornamentalak landatzea proposatzen da. Zuhaitz hauek loraldi oparo eta ikusgarria izaten dute, eta beste herri batzuetan egin ohi den moduan, loraldi garaian auzoko festaren bat antolatzea polita litzatekeela dio Seguroa paisajistak.

### JOLAS GUNE ALTERNATIBOA

San Martin auzoko 18 eta 20 etxe-blokeen artean hutsik dagoen orubean haurrentzako jolas gune alternatiboa sortzea proposatzen da, elementu interaktiboak erabiliz.

Jolas gune honek bi sarrera izango litzuzke. Bat, goiko plazatik, bertan dagoen barandari eten bat eginez. Txirrista baten bidez, edo honen alboetan egokituko diren egurrezko eskaileretatik iritsiko dira haurrak jolas gunera.

Bi zoladura mota izango ditu parkeak: jolaserako guneak areaz estaliko dira, eta gainontzekoa pinu azal txikituarekin osatuko da.

Espazioaren erdian ur-iturri bat jarriko da, eta iturriaren inguruan forma borobileko asfaltozko gunea egongo da, eta bertan kare-harri handiak jarriko dira, zirkulu kontzentrikoak irudikatuz, kromlech baten moduan.

Hauen inguruan neumatiko handiak egongo dira, batzuk hutsik, eta beste batzuetan lore usaindunak landatuko dira; hala, landareak ukitu, usaindu eta ezagutzeko aukera izango dute gazteek. Landare usaindunetz gain, hainbat frutabola ere landatuko dira (aranak, sagarrak, udareak, pikondoak...), gaztetxoek fruta zuhaitzetatik zuzenean jateko aukera izan dezaten. Horren harira, 'Baratzeko Pikua' izena proposatzen da jolas gune berri hau izendatzeko.

Jolasa bideratzeko, akazi enborrekin mikado erako bi egitura eraikiko dira. Espazioa aldamen bietan mugatzen duten eraikinetako bi paretetan rokodromo bat eta grafiti tematizatua egingo dira. Paretak beltzez margotuko dira, arbel erraldoi moduan erabili ahal izateko.

Errepide aldeko espaloitik ere egongo da sarrera jolas gunera. Bilur tontorrek mugatuko dute sarrera, eta tontorrak beraien artean lotzen burdinezko arkuak egongo dira, landare igokariz estalita, tunel moduko bat sortuz. Sarrera alboetako guneetan urritz basa sortuko da, haurrentzako gordelekua eta babes lekua eskainiz.

Azken batean, jolas eredu berrien sormena sustatu eta gazteen arteko interakzioa lantzea da proposatzen den jolas gune berri honen helburua.

**AUREKONTUA: 90.669 €**



**ELKARRIZKETA** / TEODORO BILBATUA (estraperloan ibilittakua)

# “Estraperluan diru apur bat irabazten geben, bai”

Bizpahiru urtez estraperluan jardun eben Teodoro Bilbatuak Araotz eta Araba artian

Errazionamendua eta gosia izan ziran nagusi gerra zibilaren ondorengo urtietan. Egoera horretan, makiña bat gizon-emakumek estraperluan jardun euen, hemen eskas eta garesti egozen elikagaiak Arabatik ekarten, legez kanpoko komertzian. Horreittako bat izan zan Teodoro Bilbatua, Araotzeko Urgaina (Mantxuena) baserriko semia. Bederatzi anai-arrebatan zazpigarrena, bizpahiru urte emun zittuan estraperluan. Astian hiruzpalau biaje egitten zittuan Arabara, gabaz, astuak lagun; batzutan hogeitaz astorekin. Garixa ekarten eben batez be, baiña baita garagarra, arda eta likoria be. Lanbide arriskutsua zan; gabaz ibilli biharra eta guardia zibillengandik ihesi. Baiña dirua irabazten zan, Teodorok aitortu doskunez; biaje bakoitzeko 200 edo 300 pezeta. Estraperluari jare ostian, Ternuan aldian ibilli zan Teodoro bakaillau arrantzuan.

Kontzeju | 8 | peñik



-Noiz eta zela hasi ziñan estraperluan?

-Soldautzatik etorri ostian. Aurretik kriadu egon nintzan hainbat urtian Araban eta Eskoriatzan. Ikazkin lanetan bebai, laguntzaille; ikatza Araia eruatzen geben astoz, Andarto ondotik. Soldau fan aurretik Uriarte kontratistia-  
rendako lanian be ibili nintzan, etxeko zerran, baso-lanetan...

Gero Lizarran egon nintzan soldau 32 hillebetian, eta handik bueltan ekin gotsan estraperluari. Ordurako anaia zaharraguak hasitta egozen, eta harein arrastuan geu be. Bi lagun ibiltten giñan, Zezilio Zumalde eta bixok.

-Zer ekarten zebein Arabatik?

-Garixa gehixen bat. Eskari haundixa eguen hemen; bai Oñatin, eta baita inguruko herrixetan be.

Garagarra be ekarten geben tarteka; ganauari emuteko, eta lentejia be bai, iñoiz. Arda eta likoria be sarri ekarten gittuan. Araia aldian autobusa hartu eta Gasteizeko *Casa Fernandez* dendan erosten geben likoria, eta gero astoz ekarten geben, etxeko tabernarako. Hemen, alondigan, asko kostaten zan.

-Garixa nundik?

-Barrundia aldetik gehixen bat, baiña ondo konponketan ez bagiñan, harutzago be faten giñan, Salvatierra-Aguraineko karretera jenerala pasauta, Etxebarri, Arrieta, Heredia eta inguruetara. Etxe haundixak egozen han, gari-sail haundi-xakin, eta eskeiñi egitten oskuein.

-Aldiko zenbat ekarten zebein?

-Asto bakoitzeko ehun kilo. Guk, normalian, bost edo sei

Asto bakoitzian ehun kilo gari ekarten geben. Normalian bost astorekin ibiltten giñan, baiña iñoiz hogeirekin be fanda nago, auzuan alkilauta



asto eruatzen gittuan, geuriak; baiña tarteka, hoge astorekin be faten giñan, auzuan alkilautan.

**-Zenbatero faten ziñain?**

-Astian hiru edo lau aldiz. Eskarixan arabera. Batzutan, Baltian eukitten geben jenerua gertu hona ekarteko, eta egun barruan bi biaje egindda nago.

**-Gabaz ibili biharko ziñain, ezta?**

-Bai; arratsaldian urten, goiz samar, eta hurrengo goizeko hamarretarako bueltan egoten giñan, gaba danian ibilita. Gero egunez lo egitten geben.

**-Nundik buelta faten ziñain?**

-Usakotxenetik, Katilluiturrittik, eta harutzagotik bebai. Segun zein herrittara gindoiazzen, bide bat edo bestia hartzen geben.

Lokatzia edo elurra eguenian komerixak izaten gittuan; beti faten zan astoren bat hankaz gora, eta lanak izaten gittuan.

**-Zer egitten zebein Arabatik ekarrittako garixarekin?**

-Okindegittara saldu. Gero eurak arreglaitten ziran uruna egitteko. Hemen garixa falta zan eta eskari haundixa eguen. Iñaxio Egaña beti eguen eskian, eta inguruko beste herrittara be eruatzen geben; Bergarara, Elgoibarrera... Gernikatik be etorten ziran gari billa. Gure etxera etorten ziran kamionian; kargau eta buelta. Normalian aurretik kotxe bat bialketan geben, bidian guardia zibillik ba ete zan ikusteko. Batzutan, belarrakin edo egurrarekin tapaitten geben kargamentua.



**-Euki zebein problemarik goardia zibillekin?**

-Enkontruak bai, demasak, baiña problema haundirik ez. Oñatiko kuarteleko guarda zibillekin ondo arreglaitten giñan. Pare bat txarrak egozen, baiña bestiak lagunak gittuan.

▲  
Teodoro Bilbatua emaztea, seme alaba eta auzotar batzuk goian. Teodoro bi lagun eibartarrenkin behean.

Araotz aldiaren ebiztenian geure etxera etorten ziran telefono biharra eukaiñian (orduan bi telefono bakarrik egozen Araotz danian). Baekixein gu zertan gebitzen, baiña beste aldera begiraketan euen. Hori bai, ferixa egunetan afari formala emuten gosten Txaridunian.

Araba aldiaren kontu haundiz ibili bihar izaten zan; harrapo ezker, karga dana kendu eta multa formala gaiñetik. Guri etxakun halakorik suertau, baiña gure moduan ebizten beste batzuei bai.

**-Errentagarrixa zan estraperluan ibilttia?**

-Gauzak ondo urten ezker, bai. Biaje bakoitzeko 200 edo 300 pezeta ataraten geben, eta garai hartarako asko zan.

**-Zenbat denboran ibili ziñain?**

-Bi edo hiru urtian. Poliki poliki komertziaua librauaz fan zan, eta geu be jareten fan giñan.

## Bakaillao arrantzan Ternuan

Estraperlua ibiltiari jare ostian, bakaillao arrantzan jardun eben Teodorok ipar Atlantikoko itsaso hotzetan, Labrador, Terranova eta Groenlandia aldiaren. Sei hillabeteko bi kanpaiña egin zittuan PYSBE (*Pesquerías y Secaderos de Bacalao de España*) enpresarekin, 1953-54an. Gazitzaille edo saladore lanetan ibili zan, harrapotako bakaillaua deposito haundi batzutan antolaketan, gatzetan ipinitta. Arrain bariko egunetan mantenimendu lanak be egitten zittuein. Kanpaiña bakoitzian 1.800 tona inguru bakaillao eta 200 tona olixo (gibelarekin egindakua) ekarten euen. (*Kontzejupetik aldizkarixaren 262. zenbakixan irakurri leike orduko esperientzien inguruko elkarrizketa*). Ondoren, Eibarko Sarasketa enpresan lan egin eben Teodorok eskopetendako kulatak egitten. Gero Araotzera bueltatu eta Ulman eta etxeko taberna-jatetxian (Mantxuena) lan egin eben jubilatutako arte.


**Dei**  
photography

www.deianeunamuno.com

Telef. 666 20 54 62

Email: deiufotografia@gmail.com

Estudio: 20560 Oñati Gipuzkoa





# Indarkeria matxistaren diagnostikoa Oñatin

## 2013-2015 artean 35 emakumek jarri zuten salaketa Ertzantzán, eta 15 emakumek jo zuten laguntza eske udaleko Gizarte Zerbitzuetara

Indarkeria matxistak Oñatin bizi duen errealitatea aztertu du *Sortzen* kontsultoriak udalaren enkarguz, eta azaroaren 18an aurkeztu zituen ondorio nagusiak Norma Vazquezek.

Diagnostikoa egiteko, batetik datuak batu dituzte, eta bestetik elkarrizketak egin dituzte tratu txarrak jasotako emakumeekin, udaltxeko ordezkari politiko eta teknikoekin, herriko emakume taldeekin, ikastetxeekin eta osasun zentroko langileekin.

Datuei erreparatuz, 2013-2015 artean 35 emakumek jarri zuten tratu txarren salaketa Ertzantzán, eta 15ek jo zuten udaleko gizarte zerbitzuetara laguntza eske. Datu objetiboak horiek dira, baina zuhurtziaz aztertu behar direla adierazi zuen Norma Vazquezek, normalean genero indarkeria kasuen %30 inguru salatzen direlako soilik. “Badago emakume multzo bat indarkeria nozitzen duena baina ez duena laguntza eske jotzen, beldurragatik, informazio faltagatik, edo dena delakoagatik. Eta badaude beste emakume batzuk indarkeria jasaten dutenak, baina ez dutenak onartzen”.

### LEHENENGO INFORMATU, GERO SALATU

Diagnostikoak argi erakusten du indarkeriaren biktimak gehienek Ertzantzán-rengana jotzen dutela laguntza eske, eta ez hainbeste gizarte zerbitzuetara. Horren harira, gomendio bat eman nahi izan zuen Vazquezek. “Ezin da orokortu, egoera oso ezberdinak daudelako salaketa jartzen duten



**“Muturreko indarkeria kasuen aurka sentsibilizatuta dago gizartea, baina indarkeria ez denean hain nabarmena onartu egiten da, eta hori oso arriskutsua da”**

emakumeen artean, baina jakin badakigu, emakume batzuentzat gogorra gertatu ohi dela ibilbide judiziala, ez gaudelako horretara ohituta. Beraz, gure aholkua da, ahal den kasuetan lehenengo udaleko gizarte zerbitzuetara jotzea laguntza eta informazio eske, eta gero salaketa jartzea, ikusten bada hori dela irtenbide egokiena”.

Laguntza eske jotzen duten emakume gehienek 25-49 urte arteko adina dute, eta horrek ere zer pentsatua ematen du, Vazquezek azaldu duenez. “Neska gazteek eta 50 urtetik gorako

emakume helduek ez dute laguntza eske jotzen, baina jakin badakigu, ikastetxeen eta osasun zentroyen bidez, adin tarte horietan ere ematen direla indarkeria kasuak. Beraz, hor badaukagu erronka bat. Indarkeria matxista gero eta adin gazteagotan ematen da, eta neurri eraginkorrak aplikatu behar ditugu errotik mozteko”.

### INDARKERIA NORMALIZATUTA

*Sortzen* kontsultoriak atera duen beste ondorioetako bat da, indarkeria matxista, neurri batean behintzat, normalizatuta dagoela gizartean. “Indarkeria fisikoa nabarmena eta muturrekoa den kasuen aurrean (erailketak, bortxaketak, kolpeak...) gizartea sentsibilizatuta dago; baina indarkeria ez denean hain agerikoa, (umiliazioak, mespretxuak, xantaia emozionala, hizkera eta umore sexistak...) onartu egiten da, normalizatuta dago, eta arlo horretan ere lan handia egin behar dugu, indarkeria mota horrek sortzen duen minaz eta ondorioez ohartarazteko. Biolentzia sotil horren indikatzaileak azkarrago detektatzen ikasi behar dugu, eta erasotzaileen ukatze publikoa egin”.

Diagnostikoarekin batera, *Sortzen* kontsultorak hainbat neurri eta aholku proposatu dizkio udalari, herri mailako zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzeko. “Oso inportantea da, gure ustez, indarkeria matxistari aurre egiteko politikek prebentzioa ea atentzioa edo arreta integratzea” azpimarratu du Norma Vazquezek.

#### GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

PINTURAS  
**URBIA**  
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15





## INDARKERIA MATXISTAK HILDAKO EMAKUMEAK GOGOAN

Oñatiko Sare Feministak deituta, herritar ugari batu zen azaroaren 25ean, emakumeen aurkako indarkeria mota guztiari EZETZ ozen esateko. Munduan zehar indarkeria matxistak eraildako emakumeak oroitzeko ekitaldi sinbolikoa egin zen Foruen enparantzan. "Munduko emakume guztiok biolentzia matxista jasaten dugu, izan estrukturala, sinbolikoa edo materiala. Nazkatuta gaude!" salatu zuten antolatzaileek. "Mugimendu feministako kide guztiok lanean jarraituko dugu biolentzia matxistaren aurrean gogor erantzunez eta hau ekiditeko lan eginez. Autodefentsa feminista zabaltzen eta indartzen jarraituko dugu gure herrian, emakumeok, libre izatera iritsi arte".

**MAITENA MONROY / Aktibista Feminista**

## "Matxismotik atera daiteke, nahi izanez gero"

*Autodefentsa feministako formazioan aditua da Maitena Monroy. Indarkeria matxistari aurre egiteko gakoak hitz egin zuen Oñatin.*

Norabide egokian al goaz indarkeria matxistaren aurkako borrokan?

Herritarren sentsibilizazio maila gero eta handiagoa da, baina orain lortu behar dugu sentsibilizazio hori errotzea, ez dadila izan bazkalondoko emozio adierazpen hutsa, eta aldaketa sozial bat eragin dezala gizon-emakumeen arteko harreman ereduaren.

Gizon-emakumeen arteko desberdintasunaren erakusle da indarkeria matxista, baina baita ere berdintasunik nahi ez duten gizon matxisten erresistentziaren erakusle ere. Beraz, pausu inportanteak ematen ari gara, bai, baina lanean jarraitu behar dugu. **Matxismotik irten daitekeela esan duzu, nahi izanez gero.** Bai, ideologia kontua delako. Normalean emakumeei esa-



**Animatu nahi dut jendea pentsatzera, zer egiten duen berdintasunaren alde jeikitzen denetik oheratzen den arte**

ten diegu indarkeriatik atera daitekeela, beraien erabaki baten esku balego bezala. Eta azpimarratu egin behar da, biolentzia inposatu egiten dela beti, ez dela baimentzen.

Beraz, mezua izan behar da, nire ustez, matxismotik irten daitekeela, baina irteteko gogoia eduki behar da. Hau da, gizona ez da berez matxista jaiotzen; heziketa bat jasotzen du, eta berak erabakitzen du hori izango dela bere jokabidea. Beraz, ideologia kontua denez, matxismotik atera gaitezke, baina horretarako pentsatu egin behar dugu zer nolako harre-

man eredia nahi dugun gizon eta emakumeen artean, eta izan behar du berdintasunean, etikan eta justizia sozialean oinarritutako eredia. Bestela ez du balio.

**Gizonezkoak armairutik irte-tea falta dela esan duzu.**

Esan nahi dut berdintasunaren alde dauden gizonak (gero eta gehiago direnak, baina oraindik gutxiengoak) destapatu egin behar direla, eta gizonen transformaziorako agente bilakatu.

**Zerk hutsegiten du gaur egun. Zertan jarri behar dugu enfasia?**

Imajinario kolektiboa aldatu behar dugu. Gure buruetan

oso sartuta dugu oraindik: neskatalia larrosa, mutikoa urdina. Eta ez da kolore bat bakarrik, horren atzean dagoen guztia baiziki. Pentsamendu mailan aldaketa hori egiten ez dugun bitartean ideia sexistak transmitituko dizkiegu belaunaldi berriei.

Bestalde, esan beharra dago bitarteko gutxi bideratzen direla berdintasunera eta indarkeria matxistaren aurkako borroka (Espainiako gobernuaren aurrekontuaren %0,01). Egoera aldatzeko benetako konpromiso politikoa behar da.

**Zein mezu zabaldu nahiko zenuke?**

Ezin gara despistatu. Une historiko inportantea bizi dugu. Krisi garai hau aukera bezala ikusten dut berdintasunean sakontzeko. Azken finean gure proposamenak justizia sozialarekin du zerikusia, eta horrekin denok irabazten dugu.

Azkenik animatu egin nahi dut jendea pentsatezera, zer egiten duen berdintasunaren alde jeikitzen denetik oheratzen den arte; izan ere, zenbat eta gehiago egin berdintasunaren alde, gehiago egingo dugu emakumeenganako indarkeriaren aurka.

**Baserriko kiwi ekologikoak goxo-goxoak**

3 tamaina (rokg. kaxak)

Haundiak 20€  
Ertainak 15€  
Txikiak 11€

IRABAN baserria • Tel.: 943 78 18 32

fontanería y calefacción

**BELOKI**

etxebizitza osatzeko behar duzun guztia

Bakardadeko Ama 11 • Tel.: 678 46 54 58 • OÑATI

[www.belokionline.com](http://www.belokionline.com)



# ODOL ATERALDIAK



## Enpresagintza fakultatean egingo dira aurrerantzean

Ia 30 urtez Txantxiku ikastolan egin izan dira odol ateraldiak, baina bertan egin duten espazioen berrantolaketa dela eta, odol emaileen elkarteak beste egoitza bat bilatu behar izan du. Osasun zentrora joatea pentsatu zuten hasieran, naturalena zelakoan, eta baimena lortu ondoren, anbulatorioan egin ziren iraileko eta urriko ateraldiak. Baina bertako ordutegi mugatuak hainbat arazo eragin zituen, jende asko geratu zelako odola eman ezinik, askoren haserrea eraginez.

Horrela jarraitzerik ez zegoela ikusita, odol ateraldiak Enpresagintza fakultatean egiteko aukera sortu zen. Joan den hilekoa bertan egin zen, eta esperientzia oso ona izanenez, bertan jarraitzea erabaki du Oñatiko Odol Emaileen Elkarteak. "Eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu

Enpresagintza fakultateari. Oso harrera ona egin digute, eta lekua oso egokia da; eroso, zabala, zentrikoa, ordutegi

(lekua, argia, berogailuak...).

### DATU KEZKAGARRIAK

Zoritarrez, odol-ateratze datuei erreparatzen badiugu, albisteak ez dira hain onak. Azken urteotan beherakada nabarmena gertatzen ari da. Orain dela bost urte ia 70 gizon-emakumek ematen zuten odola hileroko, eta aurtur 60 azpitik dabil batzuek bes-tekoa.

Beraz, Oñatiko odol emaileen elkarteak dei egiten die herritarrei, batez ere gazteei, odola ematera. "Oso konstanteak izan diren emaeleak

jubilatzen ari dira, eta horientzako erreleboa behar da". Gogoratu, odol emaile izateko ez dela aparteko baldintzarik behar; 18 urte beteta izatea, eta osasuntsu egotea. Abenduaren 2an egingo da hil honetako ateraldia.



**Eskerrak eman nahi dizkiogu Enpresagintza Fakultateari, oso harrera ona egin digulako. Eta eskerrak Txantxiku ikastolari ere, ia 30 urtez eman digun laguntzagatik**

muga barik, aparkalekua ere badauka... Denak dira abantailak. Oso gustura gaudere" adierazi dute elkarteko ordezkariak. Bide batez, Txantxiku ikastolari ere eskerrak eman nahi dizkiote, ia 30 urtez emandako erraztasun guztiengatik

## 'EMAILE BIKAINA' agiria jaso dute German Aginagaldek eta Mertxe Sanz de Galdeanok

Odola 75 aldiz eman duten gizonezkoek eta 60 aldiz eman duten emakumeek (urtean 3 aldiz eman dezakete, gehienez, emakumeek, eta 4 gizonezkoek) jasotzen dute EMAILE BIKAINA agiria.

**German Aginagalde** 1981ean hasi zen odola ematen, ateraldiak San Martin egoitzan egiten zirenean, zapatu arratsaldetan. "Ez nuke jakingo esaten, zehazki, zergatik hasi nintzen. Nire lagun Edor Moyua zenak bultzatu ninduen hasieran, eta gerora ikusi nion benetako zentzua. Ikusten dut dela oso ekintza solidarioa eta sinplea. Beraz, animatu egiten dut gazte jendea odola ematera, elkartasunaren oinarria dagoelako hor".

Odola ematera doan aldiro jasotzen duen tratua ere azpimarratzen du Aginagaldek. "Espektakularra da nola hartzen gaituen elkarteko jendeak eta baita mediku eta erizainek ere".

'Emaile Bikaina' agiria jaso izana poztekoa dela aitortu digu. "Gauzak ondo egin ditudala ikusten

dut, eta animatu egiten nau odola ematen jarraitzera, osasuna daukadan artean". Urtean lau aldiz ematen du odola: martxoan, ekainean, irailean eta abenduan. "Ahalegintzen naiz data horiek erreserbatzen. Gainera, bertan egindako kuadrillatxoa elkartzeko gara, eta horrek ere laguntzen du samurrago eramaten bertan eman beharreko denboratxoan".

**Mertxe Sanz de Galdeano** 1996an egin zen odol emaile, eta ordutik 21 urte darama, hutsik egin barik, urtean hiru aldiz ematen. "Odol beharra zegoelako, eta osasuntsu nengoelako hasi nintzen" azaldu digu. "Bihar edo etzi gutako edozein egon daiteke odol premian; beraz, osasuntsu gauden bitartean ez da ezer kostatzen odola ematea".

Pozik jaso du 'Emaile Bikaina' agiria, eta odola ematen jarraitzeko asmoa aitortu digu. "75era iristea gustatuko litzaidake. Seinale ona izango zen, gainera; osasuntsu nagoela". Jende gaztea animatu nahi du odola ematera, beldur barik.




**"Ekintza oso solidarioa eta, era berean, sinplea da odola ematea"**





## LASTERBIDEAN elkartasun lasterketa Oñatin egingo da ekainaren 4an

Euskal errepresaliatu politikoei eta beraien senideei elkartasuna adierazteko helburuarekin sortu zen *Lasterbidean* lasterketa duela bost urte. Orain artekoak Oiartzun, Larrabetzu, Berriozar eta Araian antolatu dituzte, eta datorren urtekoa Oñatin izango da, ekainaren 4an. Antolatzaileek erronka ere jarri dute: 1.500 lagun lasterbidean, errepresaliatuen eskubide urraketa salatzea.



## Oñatiko artisauen Gabonetako azoka

Abenduaren 17an herriko artisauen azoka egingo da Foruen plazan goiz osoan zehar (10:30-14:30). Bitxiak, panpinak, estanpatuak, xaboi eta kremak... Herriko artisauen 21 postu egongo dira. Aukera bikaina Olentzerori oparia eskatzeko. Animatu bueltatxo bat ematera!

## Iturri gorriko azken nobedadeak ezagutzeko irteera

Tolosan urtero antolatzen diren NATURALDIA jardunaldiekin bat eginez, Oñatiko Natur Eskolak bi ekitaldi antolatu ditu datozen egunetarako.

**ZINE EMANALDIA** (abenduak 16, kultur etxean, 19:00) 'Las estaciones' filma. Gizakiek eta animaliek amankomunean duten historia azaltzen duen dokumentala.

**ZINE EMANALDIA** (abenduak 18, herriko plazan, 08:30) Iturri gorri basoan egin diren azken aktuzioak (LIFE proiektua eta anfibioentzako putzua) bertatik bertara ezagutzeko irteera gidatua.

Arantzazuko Ama

San Martin

ZATOZ INFORMATZERA!!

Adosatua Kurtzekua

Kurtzekua

italde

www.italde.com

Ramon Irizar kalea  
T. 943 78 27 07





## Atzerako kontaketa hasi da

Leloa eta logoa aurkeztuta, 2017ko irailaren 24an Oñatin ospatuko den Kilometroak jairako atzerako kontaketa hasi da.

Azaroaren 11n egin zen hasiera ekitaldia, Zubikoa kiroldegia lepo beteta. Ikasle, guraso eta ikasle ohien artean Txantxiku ikastolaren 50 urteko historia laburbiltzen zuen antzezlanaren taularatu zuten, eta, jarraian, ekitaldi instituzionalaren unea iritsi zen. Ikastolako lehendakari Aitor Guridik Mikel Biain alkatearen esku utzi zuen Kilometroetako lekukoa, festa egunerarte udaletxean egon dadin.

Alkateak, bere aldetik, Oñatin 1989an ospatu zen Kilometroak jaia ekarri zuen gogora, orduko lankidetzaz izpiritua berreskuratu eta Oñatiko herriak berriro ere maila bikaina emango duen uste sendoa azalduz.

Azkenik, ikastolako zuzendari Zigor Ibarzabalek 2017ko Kilometroen leloa eta logoa aurkeztu zituen: LEKAIXOKA! Deiadarra, irrintzia, txilioa esan nahi du 'lekaixo' hitzak. Aspaldiko euskaldunek erabiltzen zuten abisuak pasatzeko edo urrun zeudenei hurbiltasuna adierazteko. Azken batean, auzolanaren ideia dago oinarrian, eta horixe da Txantxiku ikastolak Kilometroak jaiaren bidez zabaldu eta indartu nahi duen ideia, auzolana, ikastola bera ere auzolanari esker sortu baitzen.



### KILOMETROAK DENDA

Bakardadeko Ama kaleko 10ean (Hankaluzenian) ireki du ikastolak Kilometroak-2017ko materiala (kamisetak, jertseak, soinekoak, txanoak, motxilak...) saltzeko denda. Tartean, kotoi organikoak egindako poltsak daude, jasangarritasuna bultzatuz. Dendaren ordutegia hauxe da: **astelehenetik ostegunera:** 17:00-20:00; **ostiraletan:** 10:00-13:00 eta 17:00-20:00; **larunbatetan:** 10:00-13:00

## Ikusmen urritasunari buruzko hitzaldia emango du Oñatin Begisare elkarteak

Erretinosi Pigmentarioak eragindako gipuzkoarren elkarteak hitzaldia emango du abenduaren 13an, asteartea, kultur etxean (17:00). Tratamendurik ez duen ikusmen urritasuna eragiten duen gaitza da Erretinosi Pigmentarioa, eta beraz jasaten duten herritarrek oztopo asko gainditu behar dituzte eguneroko bizitzan. Beraz, arazo honen inguruko informazioa eman, herritarrak sentsibilizatu, eta gaitza duten pertsonen laguntzeko helburuarekin sortu duten 'Ikusmen Murriztua Dut' bereizgarria aurkeztea da hitzaldiaren helburua. Gaur egun, herritarren %2 inguruk dauka ikusmen urritasuna.



## Maibi dendak Gipuzkoako Merkataritza Ganberaren '10 Bitxiak' saria jaso du

*Maibi Dekorazioa eta Ehungintza* dendak Gipuzkoako Merkataritza Ganberak ematen duen '10 Bitxiak' saria jaso du. Orain dela hiru urte hasi ziren sari hauek ematen. Gipuzkoako lurraldea hamar eskualdetan banatu eta eskualde bakoitzeko merkataritza



establezimendu bat saritzen dute, poliki poliki lurralde osoko "bitxiak" mapa osatzeko. Aipagarria da, gainera, eskualde bereko merkatariek erabakitzen dutela saria nori eman, establezimenduen kudeaketa eredu, irudia edo eskaintzen duten arreta kontuan hartuz, besteak beste.

## 200 €-ko sei sari zozketatuko ditu TXANDAK bezeroen artean Gabonetan

TXANDA dendarien elkarteak 200 €-ko sei erosketa-bono zozkatuko ditu abenduan zehar elkarteak denda eta zerbitzuetan erosketak egiten dituzten bezeroen artean. Abenduaren 23an egingo da lehenengo zozketa (hiru sari) eta urtarrilaren 4an (beste hiru) bigarrena.



### ERREGA KABALGATA

Iaz bezala aurten ere Txanda elkarteak arduratuko da Errege bezperako kabalgata antolatzeaz urtarrilaren 5ean, tradizio hau berrindartzeko helburuarekin.





## Txirrindularitzaren historia Oñatin

Aloña Mendiko Txirrindularitza sailaren 50. urteurrena borobiltzeko, kirol honek gure herrian izan duen bila-kaera jasotzen duen liburua idatzi du Eneko Azurmendi kazetariak, Imanol Arkauz eta saileko beste kide batzuen laguntzarekin. Etapa ezberdinetan protagonista izan diren pertsonekin (Jose Antonio Mur, Luis Mari Etxeberria, Mariano Altube, Mikel Lizarralde, Jon Odriozola, Markel Irizar, Garikoitz Baños...) eta beste hainbat datu eta argazki jasotzen ditu 240 orrialdeko liburu interesgarriak. Urzelai estankoa, Txokolateixan, Lizarralde Kirolak eta Caravanas Oñati dendetan dago salgai 20 eurotan.

## Nikolas Segurola Fraidea, artzaina eta bertsolaria omendu dute



*Nikolas Segurola fraide, artzain eta bertsolaria* izenburua duen liburua idatzi dute Xabier Eguskitez, Iñaki Beristainek eta Eduardo Urratek, eta liburua aurkeztearekin batera, omenaldi goxo eta hunkigarria egin zitzaion joan den larunbatean Arantzazun Nikolasi. Matxinbentan sortua, Arantzazuko fraideen anaiartean eman du bizitzaren zati handiena Segurolak, eta ezaguna da batez ere, euskal artzantza gaurkotzeko egindako lanagatik, eta bertsolaritzan egindakoagatik ere. Arantzazuko dendan dago salgai liburua (20€).

## Lip Dub erraldoia, dantza eta musika Euskararen Eguna ospatzeko



Abenduaren 3an ospatzen den Euskararen Nazioarteko Egunaren harira hainbat ekitaldi antolatu ditu Udalak herriko ikastetxeekin elkarlanean. Azaroaren 30ean afari-tertulia egin zen Makalena elkartearen, eta abenduaren 2an beste hainbat ekitaldi izango dira. Hala, 15:00etan 'Guk Euskaraz'

*Lip Dub* erraldoia grabatuko dute ikasleek herriko kaleetan. Gero, 16:30etan dantzaldia egongo da herriko plazan Gauargi-rekin, eta 18:00etan kantu saioa eta txokolate jana kontzejupeian.

**Kafe OTAMENDI Taberna**

**Inportazioko Garagardoak**



**Gosariak**

**GABON JAI ZORIONTSUAK!!**

**Martzelino Zelaia 1 • Tel.: 943 78 19 49**





'Kalera, kalera!' ekimena abian da, preso politikoen aldeko borrokarri bultzada emateko

# KALERA, KALERA!

## Baketa eta Askatasuna irabaztera!

“Dagoeneko bost urte igaro dira, eta denbora horretan guztian, eskakizunak etengabeak izan badira ere, emandako pausak inoiz ez nahikoak. Iragana den gatazka armatuaren ondorioak erabakitzeko inolako mugimendurik gabeko bost urte.

Preso politikoen gaia da nabarmenena, eta aurrera egin ordez, atzera egin da gainera. Gaur egun espetxeetako egoera aurreko urteetako baino larriagoa da, eta espetxetik ateratzeko aukera urrunago dagoela dirudi; izan ere, oraindik, ezartzen den espetxeko legeria salbuespenean, neurrigabekeria eta mendekuan dago oinarritua.

Euskal preso politiko ohiok etorkizunari konponbiderako ekarpena egin nahi dion euskal preso kolektiboa eta EPPK-ko kideak babesteko premia sentitzen dugu. Hori dela eta, gure ustez, herri borroka sustatzeko unea iritsi da, eta preso guztien kaleratzea zein iheslari guztien itzuleraren beharra exijitzeko unea ere bai.

KALERA, KALERA! Bakea eta Askatasuna irabaztera! Batetik, preso politikoei aukera eskaini nahi diegulako, eta bestetik, amnistia, bakea eta Euskal Herriarentzako askatasunaren alde irmotasunez borrokan aritu diren pertsona orori aukera eskaini nahi diegulako. Kalera, kalera, etorkizuneko erronka da, eta helburua lehenbailehen denak ateratzea.

Azken finean, KALERA, KALERA! Espetxeak husteko exigentzia da, baita bakea eta askatasuna irabaztekoa ere.

KALERA, KALERA! ekimenarekin bat eginez eta preso politiko eta iheslarien egoera salatzeko, ehundaka euskal preso politiko eta iheslari ohi abenduaren 10a eta urtarrilaren 7a bitartean Usurbilen itxialdi bat egingo dugu. Honekin batera, Euskal Herriko herri guztietan elkartasun mugimenduak sortzen ari dira KALERA, KALERA! ekimenarekin bat egiteko.

Oñatin ez ditugu gure preso politiko eta iheslariak ahazten, 2017an Josebak 25 urte beteko ditu kartzelan, eta Xabier eta Xabinek beste 20 gatibutasunean. Gure herrikide hauekiko eta gainontzeko preso politiko eta iheslarietako babesa eta elkartasuna adierazteko, gabonetarako egitarau bat antolatu dugu bakea, amnistia eta askatasuna lortzeko bidea lantzeko”.

**Preso, iheslari eta deportatuak BEHINGOZ ETXERA!**

'Kalera, kalera!' - Oñati



## ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO  
GUZTIETAKO  
ALTZARIAK**

**LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK**

## S distira

estetika zentrua

- Manikura eta Pedikurak
- Solariuma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiko Tratamenduak
- Depilazioa
- ...

San Lorentzo 4 beheka | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI  
email/twitter: estetika.distira@gmail.com



# 'FLEA MARKET'



Miren eta Marije,  
ekimenaren  
sustatzaileak

## Bigarren eskuko merkatua egingo da abenduaren 3an

Miren Zubeldia eta Marije Zubizarretaren ekimenez Flea Market izenez ezagutzen den bigarren eskuko azoka egingo da larunbat honetan (abenduak 3) herriko plazan.

Europako hiri eta herri askotan (San Frantzisko, Helsinki, Berlin, Bartzelona...) ohikoak dira era honetako merkatuak, eta geure inguruan ere (Bilbon, ipar Euskal Herriko zenbait herritan) gero eta indar handiagoa hartzen ari dira. Beraz, 'Zergatik ez Oñatin?' pentsatu, eta proba egitea erabaki dute.

### HERRITARRAK PROTAGONISTA

Herritarrak dira merkatu honetako benetako protagonistak, azaldu digute antolatzaileek. "Helburua da norberak etxean erabiltzen ez dituen gauzak beste herritar batzuekin elkar-trukatzea edo saltzea. Guk mahaiak jarriko ditugu, baina, herritarren partaidetza ezinbestekoa da ekimenak arrakasta izan dezan".

"Gauzei bigarren bitzta bat ematea da helburua"

Gauzei bigarren bitzta ematea da helburua. "Askotan beste herrialde batzuetara bidaltzen ditugu gauzak, baina, beharbada, geure ondoan bizi den jendeak ere izan dezake horien beharra, eta saldu edo elkartrukatu egin ditzakegu". Bide batez, herriari bitzta eman eta herritarren arteko komunitatea sendotzeko ere balio dute era honetako azokek.

Foru enparantzan egingo da merkatua, goizeko 10:00etatik 14:00etara (euria egiten badu, arkupetan). Eta era guztietako objektuak (liburuak, diskoak, altzariak, arropak, kirol materiala...) trukatu edo saldu ahal izango da, bakoitzak nahi duen prezioan.

Merkatuak harrera ona baldin badu herritarren aldetik, urtean zehar gehiagotan antolatzeko prest daude Miren eta Marije. "Azken batean, herritar guztientzat onuragarria izan daitekeen ekimena da, herriari bitzta eman ahal diona, eta, beraz, animatu egin nahi dugu jendea parte hartzera".

**BURRUST**  
TABERNA • JATETXEA  
Bidebarrieta 6  
Tel.: 943 71 62 96  
20560 OÑATI

**FAGOR**  
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA

**NI moda**  
MODA BEREZIA  
Kale Barria, 12  
Tel. Faxa: 943 71 62 40

**CORTABARRIA**  
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA  
Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

## LAN DEIALDIAK

### Kale-garbiketako arduradun lanpostua

Kale-garbiketa zerbitzuko arduraduna kontratatzeko deialdia egin du udalak.

Eskola graduatua edo balioidea den titulazioa, B gida-baimena eta 3. hizkuntza eskakizun maila edukitzea eskatzen da.

Oposizioaldian egin beharreko ariketez gain, hautagaien lan eskarmentua eta prestakuntza osagarria ere baloratuko dira.

Azaroaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen deialdia, eta Estatuko Boletinean argitaratu ondoren zabalduko da eskaerak aurkezteko epea.

### Herri Curriculumua garatzeko teknikaria

Udalak Topagunea elkar-teari esleitu dio Oñatiko Herri Curriculumua egitasmoa garatzeko lana, eta orain proiektuaren kudeaketaz arduratuko den teknikari kontratzeko deialdia egin du Topaguneak.

Unibertsitateko goi edo erdi mailako titulazioa eskatzen da, (Magisteritza eta Pedagogia arlokoak lehenetsiko dira) eta hezkuntza formaleko unitate didaktikoen sorkuntzan eskarmentua edukitzea. Oñatiarra izatea edo heria ondo ezagutzea baloratuko da.

Bi urteko kontratua eskaintzen da, lanaldi erdikoa. Interesatuak abenduaren 7a baino lehen bidali behar dute curriculuma [kudeaketa@toagunea.org](mailto:kudeaketa@toagunea.org) helbidera. ([www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunean daude ikusgai



## 'Oñati, dabilen herria' izango da Udalaren marka berria aurrerantzean

Eguneroko jardunean erabiltzeko marka berria sortu du Udalak, gobernantza estilo berri baten adierazle izan nahi duena. 'Oñati, dabilen herria' izango da leloa, eta kolore bizidun borobil bat irudia. Aurrera doan herria, dinamikoa, bizia, irudimentsua, aktiboa eta anitza irudikatu nahi du borobilak, eta baita "O"ñati ere.

### Asteazken arratsaldeak (15:00-18:00) espreski hartuko ditu alkateak herritarrekin egoteko

#### ALKATEAREKIN HITZORDUAK

Gardentasuna, efizientzia eta herritarrekiko gertutasuna dira EH Bilduren gobernantza estiloaren zutabeak, eta horietan sakontzeko hainbat neurri iragarri ditu gobernu taldeak datozen hilabeteetarako. Hala, adibidez, alkateak asteazken arratsaldeak (15:00-18:00) hartuko ditu espreski

herritarrekin egoteko, eta hauen intereseko gaiei buruz hitz egiteko. Gainera, udalaren jarduna herritarrei erakusteko ate irekiak antolatu, eta zerbitzu telematikoak garatzeko asmoa ere adierazi dute udal ordezkariak, besteak beste.

**Lur Gorri** ETXEZ ETXEO ZERBITZUA

**Pentsuak • Lan tresnak • Haziak • Landareak • Lan erropak eta beste hainbat gauza...**

✉ [lurgorridenda@gmail.com](mailto:lurgorridenda@gmail.com) ☎ 943 905 740 - 663 384 052



## KIROL AZPIEGITUREN PLANGINTZA

### egiteko talde eragilea sortzeko deialdia egin du Udalak

Pasa den urriaren 22an kiroldegiko igerilekua eta gimnasioa berritzeko dauden aukeren inguruko bilera irekia egin zen. Chocarro-Herranz arkitektoek landutako aurreproiektuen arabera, 5 milioi euro inguruko inbertsioa egin beharko dela azaldu zen.

Diru kopuru handia dela ikusita, beharrezkoa ikusi zen herriko kirol azpiegituren plangintza bat egitea, etorkizunera begira, lehentasunak finkatuz. Plangintza hori herritarren iritzia kontuan hartuz egin nahi du udalak, eta horretarako talde eragile edo motor bat sortzeko deialdi irekia egin du.

Beraz, talde eragileko kide izateko prest dauden herritarrek kiroldegiko zuzendaritzan eman dezakete izena abenduaren 2a baino lehen. Talde eragile anitza sortu nahi da, adin, sexu eta kirol ohitura desberdinak dituen pertsona osatua. Udalak animatu egin nahi ditu herritarrak parte hartzera.

## Adierazpen bateraturik ez harrobiaren inguruan

Udaletxean ordezkatura dauden bi alderdiak Gomiztegi harrobia handitzeko proiektuaren aurka daudela ikusita, adierazpen bateratua egitea proposatu zuen EH Bilduk azaroko osoko bilkuran. Hauxe zioen testuak: *“Arantzazuko Natura 2000 eremuaren barruan proposatzen den harrobiaren handitze proiektuak bertako flora, fauna, habitat, paisaia eta auzoaren eragingo lituzkeen kalte larriak kontuan izanik, Oñatiko udalbatzak aho batez eskatzen dio Jaurlaritzari Arantzazuko natur ingurunearen babeserako irizpideak lehenetsi ditzala, bestelako irizpide edo interesen gainetik”*.

EAJk ez zuen bat egin adierazpenarekin, *“bestelako irizpide edo interesen gainetik”* esaldiaren atzean Jaurlaritzako ordezkariaren etika zalantzan jartzen delakoan. EAJk gaineratu zuen harrobia udalaren jabetzako herri lurretan handitu nahi dela, eta hori dela Udalak bere esku duen arma nagusia. Alkateak erantzun zion desjabetzerako aukera hor dagoela.

## Etxebizitza hutsei aplikatzen zaien erreargua emaitzak ematen hasi dela uste du EH Bilduk

Inor erroldatu gabeko etxebizitza hutsei OHZ/IBI zergan (kontribuzioa) %100eko erreargua aplikatzen hasi zen udala 2013an, helburu jakin batekin: ohiko bizileku ez diren etxebizitzak beharra duten herritarrendako bizileku bihurtzea. Eta, bide batez, benetan hutsik dagoen etxebizitza kopurua jakitea, politika eraginkorrak diseinatu ahal izateko.

Lau urteren ondoren, errearguaren neurria emaitzak ematen hasi dela uste du udal gobernu taldeak. Hala, 2013an 449 etxebizitzari aplikatu zitzaizkien erreargua, eta 2016an 342ri (%25 gutxiago). *“Ondorioztatu liteke neurri handi batean etxe hutsak alokairura bideratu direla”* adierazi du EH Bilduren udal taldeak.

### GAZTEEN EMANTZIPAZIORAKO LAGUNTZAK

Ildo berean, udal gobernu taldeak gogorarazi du 30 urte azpiko gazteen emantzipaziorako dirulaguntza lerroa jarri zuela martxan orain dela bi urte, hain zuzen ere etxebizitza hutsen errearguarekin biltzen den diru poltsaren zati batekin. Aurten, 23 gaztek jaso dute laguntza. Beraz, datuak eskutan, politika aktiboaren bidea emaitza onak ematen hasi dela azaldu du EH Bilduk prentsa ohar bidez. *“Hasieran polemikoa eta kritikatu izan zen erreargua, badirudi onartutzat ematen dela, 2017ko Ordenantza Fiskala aho batez onartu izanak erakusten duen moduan”*.

Errealitate sozio-demografikoa aldatzen ari den honetan, etorkizuneko etxebizitza premien arabera politikak aplikatzea da orain erronka, EH Bilduren ustez.

## Legazpiko kurtze inguruko lursailen jabeentzako deia

Legazpiko udala landa eremuko lursailen mugak GPS bidez jasotzen ari da. Dagoeneko amaitu ditu lehen faseko lanak (mugarriak jarri eta koordenadak jaso), eta orain lurjabeek dagokien dokumentua jasotzeko aukera dute udaletxean. Kontuan hartuz kurtze inguruko sail ugari oñatiarrenak direla, dei egiten zaie lurjabeek txanda eska dezatela Legazpiko udaletzeko Jone Azpeitia teknikariarekin (943737030 / [jazpeitia@legazpi.eus](mailto:jazpeitia@legazpi.eus)) dokumentuak jasotzeko.



**ESKAITZA 90€ BEREZIA**  
Guztia barne

**EZKONTZETAN** Etxe-Aundi  
*Hortxo Jabetzen*

**2016-2017 urteetan**

Informazio gehiago,  
**Tel. 943 78 19 56**  
[www.etxeaundi.com](http://www.etxeaundi.com)



# OÑATIKO IX. ERAKUSLEHIO LEHIAKETA

» Gabonetako IX. Erakuslehio Lehiaketa antolatu du Udalak, TXANDA elkartearen laguntzarekin

» Balorazioa egiteko irizpideak aldatu dira, eta, bestalde, herritarren botoak internetez emateko aukera ere egongo da aurtan

Denda eta zerbitzuetako irudia hobetu, eta herriko merkataritzari bultzadaxoa emateko asmoz, Oñatiko IX. Erakuslehio Lehiaketa antolatu du udaleko Sozioekonomia sailak, TXANDA elkartearen laguntzarekin.

Lehiaketan parte hartzen duten erakuslehiok abenduaren 5erako egon beharko dute prest, eta hala mantendu beharko dituzte abenduaren 31rarte, gutxienez.

Guztira 4.500 txantxi banatuko dira saritan. Lehenengo bost sariak (1.500, 1.000, 500, 300 eta 200 txantxi) epaimahaiak erabakiko ditu. Horiez gain, 500 txantxiko sari berezi bat egongo da, Oñatiko moneta sozialaren (Txantxia) presentzia egokien nabarmentzen duen establezimenduarentzat. Azkenik, herritarren botoz erabakitako 500 txantxiko saria ere egongo da.

## BERRITASUNAK

Erakusleihen balorazioa egiteko irizpideak aldatu egin dira aurtan. Konposizioa, argiztapena, koloreak eta originaltasuna hartuko dira kontuan. Gipuzkoako Bazkundeko teknikari batek eta erakuslehiopainketa arloko bi profesionalak osatuko dute epaimahaia.

Bestalde, herritarren sarian ere bada berritasunik, izan ere, aurtan bi bide egongo baitira botoa eman ahal izateko: orri hauetan dauden bozka-txartelak erabiliz, edo Internet bidez ([www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)).



Amalur belar dendak jaso zuen lehen saria iaz



lazko lehiaketan saritutakoak (Amalur, Kimu, Barue, Urrutia Gizonak, Marku eta Trikitx) udaleko Sozioekonomia batzordeko ordezkariekin

## OÑATIKO IX. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA HERRITARREK HAUTATZEKO ORRIA

**NIRE BOTOA** erakusleiho honi ematen diot:

**IZEN KOMERTZIALA:** \_\_\_\_\_

**NIRE IZEN-ABIZENAK:** \_\_\_\_\_

**TELEFONOA:** \_\_\_\_\_

Goiko datuak bete ondoren, moztu eta eraman orri hau abenduaren 15a baino lehen honako leku hauetako batera: Oñatiko Udala (harrera bulegoa), Turismo Bulegoa edo Udal Sozioekonomia zerbitzua (Bidebarrieta 12-Behea)

**ZOKETA: Botoa ematen duten herritarren artean  
200 TXANTXIKO SARIA zozketatuko da**

.....  
**Sinadura**



# HERRITARREN SARIA

Bi bide egongo dira aurten herritarren saria hautatzeko:

- Orri hauetan dauden **bozka-txartelak** bete eta toki hauetakoren batera eramanez: udaletxeko harrera zerbitzua, Turismo bulegoa, edo Udal Sozioekonomia zerbitzua (Bidebarrieta 12-behea)
- **Internet** bidez, Oñatiko udalaren webgunean ([www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)), edota ondoko QR kodea eskaneatuta aurkituko duzun formularioaren bitartez.

Herritarren sarirako bozkek **abenduaren 15a** baino lehen eman behar dira.

Bozka ematen duten herritar guztien artean **200 TXANTXI** zozketatuko dira.

>>>>  
Eskanetat u QR kodea  
mugikorrarekin eta  
eman zure botoa



>>>>

Abenduaren 15ean amaituko da  
herritarren bozkek jasotzeko epea.  
Parte hartzen duten herritarren artean  
200 txatxi zozketatuko dira

## OÑATIKO IX. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA HERRITARREK HAUTATZEKO ORRIA

NIRE BOTOA erakusleiho honi ematen diot:

IZEN KOMERTZIALA: \_\_\_\_\_

NIRE IZEN-ABIZENAK: \_\_\_\_\_

TELEFONOA: \_\_\_\_\_

Goiko datuak bete ondoren, moztu eta eraman orri hau abenduaren 15a baino lehen honako leku hauetako batera: Oñatiko Udala (harrera bulegoa), Turismo Bulegoa edo Udal Sozioekonomia zerbitzua (Bidebarrieta 12-Behea)

**ZOZKETA: Botoa ematen duten herritarren artean  
200 TXANTXIKO SARIA zozketatuko da**

.....  
Sinadura

## OÑATIKO IX. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA HERRITARREK HAUTATZEKO ORRIA

NIRE BOTOA erakusleiho honi ematen diot:

IZEN KOMERTZIALA: \_\_\_\_\_

NIRE IZEN-ABIZENAK: \_\_\_\_\_

TELEFONOA: \_\_\_\_\_

Goiko datuak bete ondoren, moztu eta eraman orri hau abenduaren 15a baino lehen honako leku hauetako batera: Oñatiko Udala (harrera bulegoa), Turismo Bulegoa edo Udal Sozioekonomia zerbitzua (Bidebarrieta 12-Behea)

**ZOZKETA: Botoa ematen duten herritarren artean  
200 TXANTXIKO SARIA zozketatuko da**

.....  
Sinadura

# Kontzejupetik



**ARGITARATZAILEA:** Oñatiko Udala

**ZUZENDARIA:** Iñigo Arregi

**PUBLIZITATEA:** Aratz Losada

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Aratz Losada

**KOLABORATZAILEAK:** Jerardo Elortza

eta Udal Euskaltegia

**INPRIMATEGIA:** Gertu

**Tirada:** 5.500 ale

**Lege gordailua:** SS-357/91

**Posta-e:** kontzejupetik@onati.eus

**Publizitatea:** publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## GUTUNAK

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

## Euskararen Nazioarteko Eguna (2016)

*Amaia Erostarbe Letamendi (EAJren udal-taldea)*

A benduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna da, eta, aurtengo Adierazpenean (HAKOBA-EUDEL), galdera hau luzatu digute herritar bakoitzari: ‘Zer egin dezaket nik euskararen alde?’.

Gogoeta egiten hasita, euskaraz jakin ez, eta ikasten ibili direnak eduki ditut buruan. Makina bat aldiz hasi dira euskaraz berbetan euskaldunen aurrean, baina gaztelaniaz jarraitu dute. Zer dela eta? Euskaldunon diskurtsoa hiperzuzentzailea delako ote da?

Horren harira, EGOD (Euskararen Gaineko Oinarritzako Diskurtsoaren Lanketa) egitasmoa aipatu nahi dut (Iñaki Martínez de Luna, 2015). Bertako zortzigarren ardatz estrategikoak dio atzean utzi behar dela hiperzuzentasuna eta hizkuntza bizia, komunikatzailea, adierazkorra eta multifuntzionala bultzatu behar dela. Izan ere, hiztun berriak ezin du bere burua deseroso ikusi.

“Akatsak” izeneko zutabearen (Berria, 2015-04), hizkera bizia eta naturala aldarrikatzen du Anjel Lertxundik: “Hizkuntzaren bizkartzainak, arauaren itzal luzea, akatsen aurkako gurutzada... Hori guztia bizi izan dugu, bizi dugu. Ez beti

hizkuntzaren bizipozezko etekinen faboretan. (...) ‘Behin batez, dio Montale poetak, izan zen hutsik gabe mintzatu zen bat eta ez zion inork ulertu. Azken hiztuna zela pentsatu zuen’. Baina gertatu zen jendeak natural-natural segitu zuela hizketan. Akatsekin noski”.

Euskararen erabilerak gora egingo badu, euskaldunok sustatzaileak izan beharko dugu, beraz; ezin gara hiperzuzentzaileak izan.

## PNV eta zentsura

*Ander Lizarralde*

L ekurik gabe, denborarik gabe. Gil-zapekoak” artelanen erakusketa martxan da azaroa erdialdea ezkerotik Donostiako Koldo Mitxelena kultur-gunean

Donostia 2016aren barruan antolatu da erakusketa eta bertan psikiatrikoetan eta espetxeetan dauden pertsonen artelanak daude ikusgai. Tartean euskal preso politikoen lanak zeuden, baina ez da posible izan azken hauek ikusgai izatea, Donostia 2016ko zuzendaritzak zentsuratu egin baititu “biktimen sentsibilitatea zauritu zezaketelakoan”

Eta polemikaren erdian PNVko Gipuzkoako ahaldun nagusia den Markel Olanoren hitz lotsagarriak entzun ditugu: Donostia 2016aren erabakia “ehuneko ehunean” babesten duela esan

du eta “indarkeria eta terrorismoa nozitu duten milaka pertsonen sentsibilitatea mantentzearen garrantzia” azpimarratu du. Ondoren zentsura justifikatzen saiatu da: “demokrazia orotan adierazpen askatasunak bere bidea izan behar du eta errespetatu egin behar da, baina ezin da mugarik gabeko adierazpen askatasuna izan”

Gogora datorkit San Martin-eko etxe okupatukoek eskutitz bat idatzi genuenean PNVko oposizioko burua zen Lourdes Idoiagak 2014ko otsaileko kontzejupetik-en idatzi zuena: “Guk ere defendatzen dugu, “adierazpen askatasuna” baina edozein prezioan ez, ikasi egin behar baita bereizten, noiz batzuen eskubideek beste batzuen oinarritzko eskubideak zapaltzen dituzten”.

Esan beharra dago Donostia 2016ko zuzendaritzak, PNVren onarpen osoarekin zentsuratu dituen artelanetako batzuk gure herritar Joseba Arregi preso politikoak sortutakoak zirela

Laster kunplutuko dira hogeita bost urte espetxez espetxe mendeku politika godinenean preso daukatela Joseba. Hirurogeita hamar urte beteak ditu dagoeneko eta kartzela batetik bestera gatibu izan dute urteotan baldintzarik gogorrenetan beti (gainerako euskal preso politikoak bezala) eta Euskal herritik urruti (Alicante-n gaur egun).

Hori guztia nahiko ez, eta orain zenua. Zertara ailegatu behar dugu

**ARRIZABALAGA Aroztegia**  
Berezao Ind. 10  
Tel. 943 78 14 64

**PAKITA Altzariak**  
Sta. Marina, 6  
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

**IRAZOLA Okindegia**  
Larraña auzoa, 44  
Tel.: 943 78 25 97  
Mug.: 688 630 754  
OÑATI

Baserriko ogia, egurrezko labean



## Regino Biain Guridi eta Pedro Irizar Guridi

Jerardo Elortza

Egun gutxiren buruan hil dira gure herrixan ehun urte bete barri zittuain bi pertsona aittagarri: Regino Biain kaletarra eta Pedro Irizar zubillagarra. Bata zein bestia buru onekuak izanik, oso ondo akordaitzen ziran euren bizimodu luzian ezautu eta pasautako gorabehera askorekin. Gu majo balixau giñan bixon jakindurixiaz, Oñatiko XX. gizaldiko pasarte ugari ziaztu alde.

Pedrorekin behin baiño gehixagotan egon giñan. Lehenengo Artixa taldekuok Aurrekomendiko liburua moldau geberian. Izan be, Pedroren ama Martezkora Antzuelas Beittitik etorri zan, eta Pedro bera mutikotan urte batzutan amaren baserrixan bizi eta handik Sarramendiko eskolara faten zan. Hori dala eta, informaziño bikaiña eskuratu oskun hango pasadizuen gaiñan. Orainago, Zubillagako kontuekin hasi garienian, Pedroren ekarpenak oso inportantiak izan dittugu auzoko leku-izen, baso, lantegi, jai edota ohitturak zeintzuk eta zelakuak ziran jakittekko.

## 625 € eman dizkio Pago Uso elkarateak ASPANOGI-ri

Urtero bezala, gizarte arloan lan egiten duen elkarte bati eman dio Pago Usok San Migeletako plater tiraldian batutako dirua. Aurten, iaz bezala ASPANOGI (Gipuzkoako Haur Minbizidunen Guraso Elkarte) eman dizkio 625 €, Markel Irizarren bitartez, elkarateak egiten duen lan bikaina aitortuz.

Gotzon Aranguren izan zen aurtengo tiraldiko txapelduna, plater guztiak (15) jota. Jose Antonio Guridik eta Jose M<sup>a</sup> Altubek osatu zuten podiuma. Pago Usok eskerrak eman nahi dizkie Udalari eta laguntza eman zuten herriko lantegi, denda eta elkaratei.



Reginorengana be sarrittan jotzen geben, agortzeiñeko iturrixa zan-eta. Bere eguneroko lanetik aparte, herriko zenbat zeregiñetan ez eben parte hartu Reginok bere borondatez! Eskolak, ospittala, parroki-xako eta Arantzazuko gaixak, Urbixako ermittia, mendizaletasuna, eta abar luzia. Fotografixa zaharretako xehetasunak,

gerra aurreko institutuko kontuak edota gerrateko ibillera gogorak argiketako, lekuko eta informatzaille ezin hobia izan da guretzat Regino. Beti berba egittekota pazientzia haundixaz erantzuteko gertu agertu xakun.

Milla esker, jakiña, Regino eta Pedro-ri, eta euren familixakuiari!

Oñati: 943 71 61 60  
Donostia: 943 50 76 65  
**Think & Tak !!**

Donostian etxea nahi?



lortu ezazu zurea  
**Think & Tak !!**-ekin

**Erosleentzat:**  
Aukera onenen zerrendak eta alerta zerbitzua  
Kostu eta tramite guztiak ezagutzeko aholkularitza

**Jabeentzat:**  
Alokairu turistikoa erabili, errentagarritasuna lortzeko  
Garantia guztiak etxea saldu edo alokatzeko



**Aspaldiko ametsa**



**Inbertsio bikaina**

# LIBURUAK

L iteratura bizitza da eta, konturatzen lez bagara ere, bizitzarako balio du. Historian zehar ahoz transmititu diren kontakizunak, idatziz argitaratu diren nobelak, aforismoak, poesia, pentsamendu laburrak, alegiak eta beste atal asko baliagarri zaizkigu. Gure existentzia ulertzen joateko, norberaren izateko erak eta jokabideak hobeto bideratzeko, historian zehar gizon eta emakumeen ekintza eta esperientzietatik hobereena jasotzeko eta okerrenak baztertzeko, geure buruarekiko kritikotasun positiboa sendotzeko eta irakurriz plazerra lortzeko dira liburuak.

Orain hirurogei bat urte, gutxi zuten liburuak bereganatzeko aukera. Gaur egun, guztiz aldatu da egoera. Herri txikienetan ere liburutegiak ditugu. Zer

**Bittor Madina**



esanik ez herri haundi eta hirietan. Irakurtzea nahi dugun libururen bat Udal Liburutegi horietan ez badago, "Liburu Sarea"ren bidez eskuratu dezakegu. Eta, dohain gainera.

Altxor preziatuak dira liburuak. Opari magikoak. Lagun oso onak. Edozein zibilizazio eta kulturatan liburu eder eta sakonak ditugu. Literatura mundua hain zabala denez, gustuko zaigun edozein gai jorratu, landu, eta goxatu dezakegu.

Atrebentzia bada ere esatea, azkenaldi honetan gehien irakurtzen ditudanak aforismoak, narrazio eta ipuin hezitzaileak dira. On egiten didate.

Adibide gisa, tori oparixoa. Txinakoa da, aspaldikoa. Gero, Tolstoik, idazle

errusiarrek bereganatu zuen. Besteekiko barruan sortzen zaizkigun susmo faltsuei buruzkoa da da hau.

**"Gizon batek aizkora galdu zuen, eta bizilagunaren semearen susmoa egin zuen. Frogarik ez zuenez, gaztearen ibilera zelatatu zuen, eta, zehatz-mehatz, lapur baten ibiltzeko modua zuela egiaztatu zuen. Gaztearen aurpegiari begiratu zion, eta lapur batena iruditu zitzaion. Eta haren hizkerari ere erreparatu zion, eta hitz egiteko modua ere lapur batena zuen. Bai, keinu eta ekintza guztiak adierazten zuten gazteak egin zuela lapurreta.**

**Baina geroxeago, hurbileko baso batean aurkitu zuen bere aizkora. Eta ondoren, bizilagunaren semea berriro ikusi zuenean, susmagarri jo zituen gaztearen keinu eta ekintza guztiak lapur batenaren oso bestelakoak iruditu zitzaizkion."**



# RADIOGRAFIXIA

Bada enkontru familiarrak gorroto dauenik. Eurantzat gabonak pasau biharreko tramite bat dia. Eta egixa esan, ez xatie gogaigarrixak itten egunero beste batzuen etxera fan bihar daueilako, beste herri batzuetara kasu, elegante jantzi bihar daueilako, hankak itxitta jasarri eta ahua itxitta murtxikatu bihar daueilako, finian, euren bizitzez ezer gutxi dakixein jendez inguratu bihar daueilako, inungo bihar barik protokolozko hamaika erregalo zabaldu eta gainera barretxo batekin eta bi patxo emunaz mundu dana eskertu bihar daueilako. Ezta mahaixan politikiaz berba ittia "deporte de alto riesgo" omen

**Jone Arrazola**



danez, urtian zihar bakoitzak lortutako enplegu, premixo eta tituluez harro jardutia hobeto izaten dalako.

Hori dana, tira, esangura bariko kon-tua da bestelako radiografixen parian. "Mahaixan lekua hartzeko garaixan ni azkar ibiltten naiz. Bihako. Izan be, tio horren onduan tokau eskero badakitt zer pasauko dan: infernua. Beti topaitten dau momentu bat mundu danatik urrundu xamar edo beste barik eh! Danan aurrian, baina porsiakaso ahopetik: " hombre guapa! la etzara lenauko neskatillia eh! Ja

emakume-emakumetuta zauz! Ipurdi galantak urten dotzu...etorri ona, jasarri nere gañian! Aber, eta mutilak, zer? Ja makiñatxo bat eulixan pare inguruan rondon eukikottuzu, ezta? Mekasuen! Zuk kasorik pez eh! Danak lizun hutsak izango dia eta! Baina oin esan egixa; egongo da hor espezialen bat...gauzak ondo itten dakixen batenbat. Badakitzu..."

Ezauketan dittut ez bat, ez bi neska urtero-urtero antzerako kasueiri aurre in bihar izaten xaueinak. Euren etxetan, maitte dauein jendez inguratuta, bihotz oneko gizon eta andrien onarpenpeian: "Ba jare eiozu, badakigu zelakua dan eta!".

Ez da gure paranoia, ez da exagerazio bat. Errealitate hau bortizkerixa jasaneziña da.



# - Arazerixan -

2016a ere urte oparoa izan dugu Gaztelekuan; beste zenbait ekintzekin batera herria ezagutzen eta astintzen hasi ginen *Arazerixan*-en eta ildo horri jarraituz iritsi ginen udako oporretara.

Indarberrituta hasi genuen ikasturte berria eta honela, herritarren jaiekin topatu ginen, geuk ere parte hartze aktiboa izatea nahi genuela herriari erakusteko gogoz. *Gaztion Eguna* ospatu genuen, ekintza ezin erakargarriago eta dibertigarriekin; guztia geuregandik eta geuretzako egina. Herriko 12-15 urte bitarteko gazteak elkarrekin eragiten; goizetik iluntzerarte egun polita aurrera eramanez.

Zerbitzuko gazteenei ongi etorria egin ostean arima eta espirituen eguna baliatuz *Felixa* etorri zen bigarrenaz Gaztelekura. Haur eta gazteek horrenbeste espero zuten ber-elkartzea gertatu zen, *Felixa* gure nekazariarekin eta negar eta algara ostean zera abestu genion:

*Felixa Felixa! Etorri gugana,*

*Felixa Felixa! Emun argixa!*

A ze poza gurea Gaztelekuan berriz ere aske ginen geureari ekiteko!

Bide honi jarraiki Kuboko haur talde bat urteetan zehar izaniko eskaera bati erantzuna eta gorputza ematen hasi zen firma bilketa bidez. Lan eta buruhauste ugariren ondoren firma bilketa jendetsu eta anitza lortu zuten, haur txiki eta helduak beraien ekimenera batuz. Beraien eskaera argia: Kuboko ordutegia luzatzea. Eskaera eta sinadura orriak udaletxean aurkeztu, udal langileekin bildu eta negoziatu ostean beraien helburua lortu dute; Kuboko ordutegia abendutik aurrera asteburuetan eta jai bezperetan luzatu egingo baita. Ostiral, larunbat eta jai bezperetan 20:30ak arte eta igandetan 20:00ak arte. Bejondeizuela!

Eta horrela joan zaigu udazkena oraingoz, geure barnean handi egiten diren bizipen eta istorio txikiz beteta. Urtea ez zaigu amaitu oraindik eta gabonetan ere ekintza ugari izango ditugu Gaztelekuan, ekintzok buruan ditugula ari gara idazten lerrook, baina 2017a ilusioz jota dugularik. Espero dezagun aurtengoa bezainbestekoa edo oparoagoa izatea. Gaztelekuan egongo gara!!!



## ABENDUAN...

**LU DOT EKAN:** [5 eta 12] Jostailu trukerako jostailu bilketa (16:45-19:45). [14] Hitzaldia "Jostailuak nola aukeratu" 18:00etan Erabilera Anitzeko gelan. [17] III. Jostailu truke azoka Txaloka Ludotekan (11:00-13:00). [26tik 30era] Gabonetako ekintza bereziak ludotekan (10:30-13:00).

**KUBOAN:** [2] Kastañeruak (17:00). [2] 6. mailakoekin Gabonetako Ekintzen Bilerak. [3] Euskera-ren Eguna. [6] Zinema "2057 Odisea bat Kanposantuan". [9-11] Eskulanak. [22] Bizkotxo Tailerra. [29] Irteera 3-4-5. Mailakoekin. **GAZTELEKUAN:** [10] Kontzertua: Elena Setien eta Eraul: 22:30, sarrera doan. [16] Kontzertua: Frank eta The Young Wait. [10] Kontzertua: Goazenen antzerkia.

# Ameriketara, Colon baino lehen gipuzkoar bat iritsi ote zen hipotesia planteatzen da Azpiazen liburu berrian

**HISTORIA MODERNOAN EUSKALDUNEK IZAN ZUTEN PROTAGONISMOA ALDARRIKATZEN DU AZPIAZUK**

**H**ielos y océanos. *Vascos por el mundo* (Tarttalo) izenburua duen historia liburu berria argitaratu du Jose Antonio Azpiazu antropologo eta historialari oñatiarrak.

Iaz argitaratutako *Y los vascos se echaron al mar* liburuaren ildo beretik, Euskal Herriaren eta itsasoaren artean historian zehar eman den etengabeko erlazioa ikertzen jarraitzen du Azpiazuk.

Itsasoak gure historia izan duen garrantzia erakustez gain, aldarrikapen kutsu bat ere badu Azpiazen lan berriak. Hain zuzen, Euskal Herriko itsasgizonen Europako Historia Modernoaren hastapenetan izan zuten protagonismoa aldarrikatzen du, Espainiako historiografian bigarren mailan geratu izan dena askotan. Ipar Atlantikora, Ameriketara edota Indiako Ozeanora egindako espedizio askotako protagonistak euskaldunak zirela erakusten du Azpiazuk.

Liburu honetan Jose Maria Unsain eta Javier Elorzaren kolaborazioa izan du, eta, hain zuzen, azken honek zeresan

handia eman duen hipotesia plazaratzen du.

## ZUMAIAR BAT COLONEN AURRETIK AMERIKETAN

Hipotesi horrek dio, agian, Miguel de Ibarra zumaiarra Cristobal Colón bera baino lehenago iritsi zela Amerikara. Simancas-eko artxiboan aurkitutako dokumentu baten arabera, frogatuta dago Errege Katolikoek Indietara joateko espedizio bat enkargatu ziotela Diego de Santillan komendadoreari 1492an, eta honek Miguel de Ibarra zumaiarraren ontzia kontratatu zuela.

Dokumentatuta dago biajea egin zela, komendadorea onik itzuli zela, eta itsasgizon zumaiarra bidaiari hil zela, bere emazteak adierazten duen moduan zegokion ordainsaria eskatzera Sevillara doanean. Ez dago garbi, oraindik, espedizioa Indietara iritsi ote zen ala ez. Ibarraren emaztea Sevillan hil zen, eta orduan eginko testamentuak gauza asko argituko luke, baina dokumento hori ez da oraindik azaldu.



## Oñatiar jatorriko Irizar almirantearen balentria

Julian Irizar ontzi-kapitainak 1903an Antartikan burutu zuen erreskate operazio sonatua ere jasotzen du Azpiazuk lan berrian. Zubillagako Marteskoa baserrian jaio (1834) eta Ameriketara joan zen Juan Jose Irizarren semea zen Julian, Buenos Airesen jaioa, 1869an. Bertako Ontzigintza-Eskolan ikasi eta itsasoari eta nabigazioari lotutako bizimodua egin zuen, eta 1903an nazioarte mailan oihartzun handia izan zuen gertakari bateko protagonista izan zen.

Suediar zientzialari talde bat Antartikara joana zen, baina hauen itsasontzia izotz plaken artean kateatuta geratu zen, ez aurrera ez atzera. Gainera, izotzaren presioak zatarazi egin zuen barkuaren egitura. Hainbat hilabetez beraien berririk gabe igaro ostean, Argentinako gobernuak korbata bat bidali zuen bertara, Irizar almirantea buru zela. Hilabete beranduago zientzialari guztiak onik erreskatatzea lortu zuen, eta Irizarren balentriak oihartzun handia izan zuen mundu zabaleko egunkarietan. Kapitain titulua eman zioten Irizarri, eta bere sorterrian oroigarri bat jarri zuten. Buenos Airesen hil zen Irizar 1935ean, 66 urte zituela.

caravanas  oñate



• GALARAGINTZA - CALDERERIA  
Otadui zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

[www.caravanasoñate.com](http://www.caravanasoñate.com)

• BIZIKLETAK  
• ERREMOLKEAK  
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK  
Otadui zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 78 05 65  
Atzeko kale, 32 (erakusketa)



## PINTURA ERAKUSKETA

## 'BIZILAGUNAK'

Azken bi urteetan egindako margolanak erakutsiko ditu Jabier Erostarbek



Erostarbe, Selma Huxleyri eskainitako margolanarekin

## KULTUR ETXEAN, ABENDUAK 12-30

'Bizilagunak' izeneko margolan sorta jarriko du ikusgai Jabier Erostarbe diseinugile eta ilustratzaile oñatiarrak kultur etxean (abendua 12-30). Azken bi urteotan egindako lanak dira; tintaz, rotuladoretz eta akuarelaz marraztutako pertsonen erretratuak. Guztira 70 bat margolan, gai ezberdinetakoak: Oñatiko inauterikoak, memoria historikoarekin lotutakoak, lurralde ezberdinetakoak (Errusia, Australiako aborigenak, Mongolia, Senegal...). Margolan handiena Selma Huxley ikerlariari eskeinitakoa da; bere erretratoa San Juan baleontziaren aurkikuntzako irudi batzuekin batera azaltzen da.

Margotzerakoan erabilutako material eta eta tresnen mostra txiki bat ere egongo da, eta margolanak erosteko aukera ere bai.

## INGALATERRAN ERE BAI

Aldi berean, *Tim* eta *Carolyn Saunders* galeristek *Kent* konterriko *Folkestone* herrian antolatu duten erakusketa kolektiboan parte hartzen ari da Erostarbe, azaroaren 27tik abenduaren 30era, beste hiru artistarekin batera. Zortzi margolan eraman ditu hara.



Tintaz, rotuladoretz eta akuarelaz egindako 70 erretrato egongo dira ikusgai. Erosteke aukera ere egongo da

**ANE MERTZERIA**

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

**Cartonajes Arregui, S.A.**

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

**MAPFRE**  
Oñati

Portu kale, 5  
20560 Oñati

Tel.: 943 78 12 65  
Faxa: 943 78 07 85

**ARRI**  
Industria Hornidurak  
Burdindegia

*Orain Oñatiarren zerbitzura!*

Goribar auzoa, 10 • Tel.: 943 78 11 18  
suministrosarri@hotmail.com

# 60.000 euro gimnasioa berritzeko

**HAINBAT FITNESS MAKINA BERRITZEAZ GAIN, ARGITERIA ETA BEIRATEA ERE ALDATUKO DITU UDALAK**



## GIMANSIOA ITXITA EGONGO DA ASTEBETEZ (ABENDUAK 12-18) BERRITZE LANAK EGITEKO

Udal Kirol sailak 60.000 euro bideratuko ditu kiroldegiko gimnasioa berritzera. Alde batetik, 31.456 euro (BEZ kanpo) gastatuko ditu ekipamendua berritzen. Korrika egiteko bost zinta, step eta eliptika bana, eta indarra lantzeko bost makina berri jarriko ditu.

Horrez gain, bertako argiteria ere aldatu egingo da. Gaur egungo argiek kontsumo handia dute, eta hauen orde ezin dira 27 argi puntu berri jarriko dira (17.642 euro), energia kontsumo txikiagoa dutenak eta kalitatezko argiztapena bermatzen dutenak. Bestalde, gimnasiko sarreran dagoen beiratea ere aldatu egingo da (3.746) bertatik sartzen den hezetan eragiten dituen kalteak ekidin asmoz.

### MAKINA BERRIAK

- Korrika egiteko 5 zinta.
- Step 1
- Eliptika 1
- Indarra lantzeko 5 makina



## Oñatiko Kirol Sariak-2016

Aurten ere Oñatiko kirol sariak emango ditu Udalak, urtean zehar nabarmendu diren kirolarien eta hauen inguruan lan egiten duten teknikarien eta laguntzaileen lana aitortzeko. Abenduaren 23an egingo da sari bana-keta udaletxean (19:00).

### HERRITARREN SARIA

Udaleko Kirol batzordeak emango dituen sariez gain, herritarrek ere izango dute kirolari onena hautatzeko aukera, epaimahaiak proposatutako hiru kirolarien artean: Ane Erostarbe (eskalatzailea), Xabi Gordoia (igerilaria) eta Garazi Erostarbe (txirrindularia). Abenduaren 5etik 21era egongo da botoak emateko aukera [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunean. Botoa ematen duten guztien artean bi lagunentzako afaria zozketatuko da.



**Waleska Mager Ileapaindegia**

Errementari plaza, 1  
Tel.: 943 03 91 70  
Mug.: 605 72 64 43

**WALESKA MAGER**



## GABONETAKO EKINTZA BEREZIA KIROLDEGIAN

## Urpeko arkeologia



Abenduaren 30ean, kirolddegiko igerilekuan (16:00-20:30)

Gabonetan urtero antolatzen diren Ur-Jolasez gain, aurten ekintza berezia egongo da abenduaren 30ean, arratsaldean.

‘**ULUBURUN: hondoratzea igerilekuan**’ du izena ekintza berezi honek, eta dibertigarria izateaz gain, helburu didaktikoa ere badu, urpeko arkeologoena lana ezagutzeko aukera ematen baitu.

Mediterranio itsasoan, Turkia parean, kristo aurreko 1300. urtean hondoratu zen itsasontziaren izena da *Uluburun*. 1982an aurkitu zuten ontzia, eta bost kultura ezberdinetako 18.000 pieza aurkitu zituzten bertan.

Zubikoan antolatuko den ekintzan, *Uluburun* ontzian aurkitu ziren piezen erreproduzioak jarriko dituzte igerilekuan, eta neska-mutikoei piezak aurkitu eta katalogatu egin beharko dituzte, urpeko arkeologoena metodoa jarraituz.

Bi txanda egongo dira: 10-12 urte artekoentzat (16:00-18:00) eta 13-15 urtekoentzat (18:30-20:30). Prezioa: 3 €.



## Mendi irteera Erniora (1.050m)

Aloña Mendiko Mendi sailaren abenduko irteera Ernio mendira izango da, abenduaren 18an. Iturriotzeko Bentatan abiatu eta Hernialden amaituko da ibilaldia (14 km. / 750 m.-ko desnibela / zailatun barik). Ondoren, urtea amaitzeko, baba-jana egingo dute Tolosako *Frontón* ostatuan. Goizeko 7etan irtengo da autobusa. Izena emateko azken eguna, abenduak 15, Aloña tabernan. Bazkideak 10€; ez-bazkideak 13€, langabetuak 5€.

## Ziklokrosa Oñatin, abenduaren 18an

Hilaren 18an Oñatiko VII. ziklokrosa jokatu da Urrutxu inguruetan, goizeko 10etan hasita. Bertan ariko dira Aloña Mendi-Arrikruz taldeko Ander Blazquez, Unai Cueva, Aritz Torres eta Ander Gartzia, eta baita Caja Rural taldean ari den Garazi Erostarbe ere.

## Aloña Mendiko korrikalariak bikain

Aloña Mendiko Atletismo saileko neska-mutilak oso lan txukuna egiten ari dira kros denboraldiko lehen probetan. Aipagarrienak, Nahia Lasagabasterrek, infantiletan, eta Enaitz Arabaolazak, alebinetan, Zarautzen lortutako garaipenak. Enaitz bigarren sailkatu zen Irunen, eta Igor Mugartza ere, infantiletan, bigarren sailkatu da Zarautzen eta Irunen.



**OÑATIARRAK MARATOIAN.** 22 oñatiarrek amaitu zuten azaroaren 27ko Donostiako maratonia. Hona hemen denborak: Asier Aranguren (2:51:11), Imanol Molinero (2:53:13), Beñat Madariaga (2:55:58), Aitzol Guridi (2:59:16), Axier Larral (3:06:02), Jose Antonio Erostarbe (3:15:18), Ernesto Agirre (3:18:09), Ander Gorostiaga (3:18:09), Iñigo Zabaleta (3:18:11), Iban Guridi (3:22:06), Asier Murguzur (3:24:33), Luis Urigoien (3:25:23), Ander Zabarte (3:28:24), Arkaitz Sasiain (3:30:33), Igor Korkostegi (3:38:08), Ismael Malbadi (3:39:03), Borja Moiu (3:55:53), Nekane Maiztegi (4:13:18), Felix Sancho (4:13:18), Miren Galdos (4:17:43), Ignacio Bolivar (4:17:44) eta German Aginagalde (4:39:35).

## SAN SILBESTREA

Urtero bezala, urtea korrika agurtzeko aukera egongo da abenduaren 31n. Antxintxiketan kirol elkarteak antolatuta San Silbestre lasterketa jokatu da 16:30etan. Aurretik, 16:00etan, gaztetxoentzako lasterketak izango dira plazan.

## Pilota sailaren bazkide kanpaina

Pilota goraka dator Oñatin, zorionez, eta, horrek, jakina, Aloña Mendiko Pilota sailaren gastuak gora egitea ekarri du. Horregatik bazkide laguntzaileak egiteko kanpaina jarri dute abian, urteko 30€-ko kuota baten truke. Pilota sailak hilero bi laguntzako afaria zozkatuko du Zumel-tzegi hotelean, bazkideen artean.



ren bidetik, soinu helduago eta elektronikoago baten bila. "Eboluzio handia dago lehen diskotik hona" adierazi digu artistak. "Produkzio mailan askoz landuagoa da hau, eta esango nuke honetako abestiak borobilagoak direla, bere klimaxera iristen direla".

Soinu, erritmo eta atmosfera ezberdinak aurkituko ditugu *Thrill* diskoak biltzen dituen hamabi abestietan; batzuk ilun samarrak, mistikoak, sentsualak, eta beste batzuk argiagoak, biziagoak. "Pop elektronikoak da oinarrian, baina estilo konkretu batera mugatu barik. Soinu berrietan arakatu eta probatzea gustatzen zait, inolako muga barik eta klixe barik. Nolabait definitzekotan, pop askea edo independentea dela esango nuke" dio Osunak.

#### AUTOEKOIZPENA

Abesti gehienak ingelesez dira, (erosoago sentitzen omen da esperimentatzeko garaian), baina aurreneko diskoan ez bezala, oraingoan gazteleraz ere baditu hiru kanta. Mezuari dagokionez, kapitalismoaren menpe bizi den gizarte berekoi eta indibidualistaren kritika egiten du *Dinero* abestian, baina kantarik gehienetan sentimenduz ari da; bikote harremanez, frustrazioaz,

# 'Thrill' diskoa kaleratu du AITOR OSUNAK

» Pop independentea jorratzen du bere bigarren diskoan

Aitor Osunak, Oñatin bizi den musikari eta konposatzaile donostiarra, 'Thrill' izeneko lan berria plazaratu du. Bi urte pasa dira bere lehen diskoa (Unfit) kaleratu zuenetik, eta ordukoan bezala, pop estiloko musika elektronikoa aurkituko dugu disko berrian.

Baina bada desberdintasunik bi diskoen artean. Aurrekoa gertuago zegoen pop komertzialetik, eta oraingoan, aldiz, gehiago jo du esperimentazioa-



#### DISKOA NON ESKURATU

**Ongi** eta **Oñati** tabernetan dago salgai 5 €-tan. Facebook-en ([www.facebook.com/aitorosuna](http://www.facebook.com/aitorosuna)) ere eska daiteke (3€ bidalketa gastuak) eta dendan birtualetan ere bai. Osunaren *youtube* kanalean ere entzungai dago diskoa oso osorik.

## OÑATI GARBKETAK S.L.

- Komunitate, garaje...garbiketa integrala
- Lurren kristalizatua, dekapatua eta argizari ematea.

Olakua 17 behea, esk. / Tel.: 722 733 712  
argitagarbi@hotmail.com



## Almaraz

Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444  
www.almaraz.info

### Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat **saldu** edo **alokatu** nahi baduzu, **dei** iezaguzu".



estipenaz, pasioaz, itxaropenaz, ilusioaz...

Autoekoiztutako lana da oso osorik. Kolaborazio txiki batzuk izan ditu (*Era* abestian, Txileko *Max Morales* eta *Joaquín Jauregi*-ren ahotsak sartu ditu, eta *Dinero*-n, *Patxi Luque*-ren gitarra), baina gainerakoan Aitorrek berak sortu eta grabatu ditu diskoko hamabi abestiak, etxean.

Hiru abestiren (*Dinero*, *Era* eta *La verdad*) bideklipak ere grabatu ditu. Osunak berak egindakoak dira, eta *Facebook*-en edo *Youtube*-n daude ikusgai.

### ARTISTA BIRTUALA

Oraingoz ez dauka zuzeneko emanaldirik programatuta. Era honetako lan bat zuzenean aurkeztea zaila dela azaldu digu. "Atzean dagoen lan pro-

## Eurovision jaialdia amets



2017an Ukrainan ospatuko den Eurovision jaialdian Espainia ordezkatzeko hautagaitza aurkeztu du Aitor Osunak, plazaratu berri duen *Thrill* diskoko *Just How We Do* abestiarekin. Bere disko berriko abestirik energikoena eta positiboena dela adierazi digu Aitorrek; "himno edo ereserki baten tankera du, era honetako musika jaialdi baterako egokia". Danera 150 bat musikarik aurkeztu omen dute hautagaitza, eta orain aurre-aukeraketa (30 abesti) egingo du epaimahaiak, eta horien artean aukeratu ahal izango du jendeak. Aitorrek badaki oso aukera gutxi dituela, ez daukalako izenik, ezta diskoetxe baten babesik ere, baina eskaparate ona da eta ez dauka galtzeko ezer, jende asko mugitzen baita jaialdi honen inguruan. Aitor Osunaren *youtube*-eko kanalean entzun daiteke abestia (QR kodean jarri dugu lotura).

fesionala zuzeneko batean islatzeko talde bat beharko nuke, ambientazio bat... eta hori ezinezkoa da gaur gaurko. Nik nahikoa asumituta daukat artista birtuala naizela".

Baina gustura dago horrela, momentuz. Pozik dago atera duen diskoarekin, eta konforme egongo da jendeak erosten edo entzuten badu. Zorionez, gero eta ezagunagoa da Osu-

naren musika; gero eta jarraitzaile gehiago ditu, eta horrek indarra ematen dio sortzen jarraitzeko.



## 'TXANTXAKALE' Irazan taldeko aktore gazteen gala berezia

Urtarrilaren 7an Santa Ana aretoan eskainiko duten 'Txantxakale' saioa prestatzen ari dira ilusio handiz Irazan taldeko gaztetxoak. KALEAN grabatutako txantxa ezberdinak erakutsiko dituzte, eta sorpresa ugari ere izango da, eta baita zozketa bat ere. Sarrerak abenduaren erdialdera jarriko dira salgai Txokolateixan eta Gaztelekuan.

## ELKAR HEZI TAUPADAK- ELKARTASUN AZOKA / Abenduak 18

Urteroko ohiturari eutsiz, elkartasun azoka antolatuko du aurten ere Elkar Hezi ikastetxeak. 'Boluntariorza' eta EA-21eko 'Bioaniztasuna' dira aurtengo gaiak. Batxilergoko 2. mailako ikasleek antolatu dute azoka, eta hogei bat Gobernu Kanpoko Erakundeak parte hartuko dute, beraien lana eta produktuak erakutsiz eta salduz. Gainera, 'Yoga solidario' saioa, arropak birziklatzeko eta txapak egiteko tailerrak ere egongo dira. Ohi bezala, txosna bat ere jarriko dute, eta Elkar Heziko guraso, langile eta ikasleek egindako bitxiak eta goxoak ere salgai egongo dira.

Gero, elkartasun proiektu batera bideratuko dute bertan batutako dirua.

Elkartasun azokaren inguruan, bestelako hitzaldi eta tailerrak ere antolatu dituzte, gaur egun bizi dugun krisi humanitarioaren aurrean hainbat herritarrek egiten duten lana erakutsi, eta errealitate bidegabe hau eraldatzeko dugun gaitasunaz jabetzeko asmoz. Hala, 'Zaporeak', 'Destino Mongolia', 'Pedaleando por los refugiados' edo 'Nepal Lagunduz' bezalako proiektuetan lanean diharduten pertsonak gonbidatuko dituzte.



## Nazioarteko akordeoi lehiaketa



Maddi Santa Cruz, Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleak, abenduaren 8tik 12ra ospatuko den 'Arrasate Hiria' Nazioarteko XXIV. Akordeoi Lehiaketan parte hartuko du, hiru obra interpretatuz: 'Rock Fisa', 'Vozle Rechi' eta 'RHA!'



**COINBROKER**  
ASEGURU ARTEKARITZA  
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9 • 20560 Oñati

☎ 943 089 006 ✉ oinati@coinbroker.eus  
🌐 www.gipuzkoa.coinbroker.eus

## AGENDA

# 12

## ABENDUA



### IKASTARO-TAILERRAK

#### > ABENDUAK 11 / 10:00

**GABONETAKO GOZOGINTZA**  
Azukrerik gabeko eguberrietako gozokiak egiten ikasi: turroiak, polboroiak, mazapanak, bonboiak, trufak... Abenduaren 11n (10:00-13:30). Informazioa eta izen-ematea: 658719089.

#### > KZ GUNEA / ABENDUAN

'Smartphoneak eta tabletak: atera etekin handiena'; 'Bapateko mezularitza smartphonearen bidez'; 'Instagram'; 'Marka pertsonala eta LinkedIn'; 'Erosketa eta salmenta seguruak internet bidez'; 'Twitter'; 'Facebook' eta 'Dropbox'. Informazio gehiago: 943 023672/onati@kzgunea.net.

### TOPAKETAK

#### > ABENDUAK 9-10-11

**GAZTERAIKI TOPAKETAK**  
Euskal Herriko gazte mugimenduen autogestio topaketak Barañainen. Antixenatik bertara joateko deialdia egin dute. Izena emateko aukera Arranon. (<http://gazteokeraitzen.topatu.eus>)

### ANTZERKIA

## Pake-Lekukoen lan berriak

#### > ABENDUAK 17, ZAPATUA SANTA ANA ARETOA, 19:30

Pake-Lekuko Ikusi-Makusi taldeak prestatu dituen bi obra berriak aurkeztuko ditu: 'Sala de espera' antzezlan komikoa, eta kutsu erromantikoa duen 'Carta a Ramón' lana, Campoamor (1817-1901) poetaren olerki batean inspiratua. Sarrerak (5 €).

### HITZALDIAK

#### > ABENDUAK 28 / 19:00

**'LEHENGO BASERRIA ETA BASERRITARREN GORABEHERAK'**



Hizlaria: Pedro Berriochoa antropologoa. Baserriaren historia eta nekazal kulturaren inguruan aditua. *Artixa* elkarteak antolatuta, udalaren laguntzarekin. Kultur etxean.

### IPUIN KONTALARIA

#### > ABENDUAK 15 / 18:00

**SAIOA AIZPURUA (3-5 URTE)**  
Udal liburutegiko Ostegun Kontalariak ekimenaren barruan 3-5 urteko haurrentzako ipuin kontaketa Saioa Aizpurua-ren eskutik. Gonbidapenak hilaren Setik aurrera.



### KONTZERTUAK

#### > ABENDUAK 2 / 22:00

**'PELAX' eta AITOR REGUEIRO**  
Hotz-Oñatik antolatuta, Unai Pelax eta Aitor Regueiroren kontzertua. *Gaztetxean*.

#### > ABENDUAK 9 / 22:00

**'ALTXATU' + 'HIBAKUSHA'**  
'Altxatu' eta 'Hibakusha' talde nafarrek disko berriak aurkeztuko dituzte. *Gaztetxean*.

#### > ABENDUAK 10 / 22:30

**ELENA SETIEN eta 'ERAUL'**  
Pop experimental indie-a egiten duen Elena Setien eta Asier Beramendi donostiarraren kontzertua. *Gaztelekuan* doan.

#### > ABENDUAK 16 / 22:30

**'FRANK' eta THE YOUNG WAIT**  
Folk-rock talde donostiarrak. *Gaztelekuan*.

#### > ABENDUAK 17 / 22:00

**'WHAT A BAND' + MARY MAY**  
Pop-rock talde bergarra eta Maria Fagan arrasatearraren kontzertua. *Gaztetxean*.

#### > ABENDUAK 28 / 22:00

**TXULETONS**  
Oñatiko taldearen kontzertua. *Gaztetxean*.

### + INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



## BATUAK S.L.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN  
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)  
Tfona: 943 78 11 15 • Faxe: 943 71 82 50





## ANTZERKIA-POESIA

> **ABENDUAK 18 /**  
AUTOBIOGRAPHIKAL

Poesia-Antzerkitu-Interpretatuta. Mundu osoko poeta ezberdinen olerkiak bildu eta haiekin jolasten duen ikuskizuna. *Gaztetxean*.

## MENDI IRTEERA

> **ABENDUAK 29 / 9:00**  
HISTORIAURREA OÑATIN

Gazte Asanbladak antolatuta, Oñatiko historiaurrean sarkontzeko irteera, adituen gidaritzapean. Anton Koban eta beste haitzulo batzuetan sartu eta bertan agertu diren aztarnen berri jasotzeko aukera egongo da. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

## TOMAXEN ABENTURAK 'Hiru ipuin'

> **ABENDUAK 17, ZAPATUA**  
**ZUAZOLA INSTITUTOAN,**  
**16:30 eta 18:00**

Urgain-Errekaldeko guraso elkarteak antolatuta, 'Tomax eta Muxugorri' pailazoan ikuskizun berria ikusteko aukera hilaren 17an. 'Hiru ipuin' du izenburua, eta beraien erara kontatuko dituzte 'Txanogorritxo', 'Hiru txerritxo' eta 'Hamelingo txirularia' ipuinak, kantua, dantza eta magia uztartuz. Bi saio eskainiko dituzte (16:30 eta 18:00). Sarrerak (4€) Mizke, Kiku eta Txokolateixan daude salgai.

## LIBURUTEGIKO BERRIENAK



CD

"Estutu"




LIBURUA

"Bob Dylan, todas sus..."



CD

"Guria Ostaturia"



LIBURUA

"Lehonard Cohen, everybody..."



CD

"Harro"



LIBURUA

"Prince"

## MERKATU TXIKIA

- > **Etxea salgai.** Babes ofizialeko etxebizitza salgai Ugarkalden. 3 logeladuna, trasteleku eta garaje irekiarekin. 145.000 euro + altzariak. Interesatuak deitu: 688 617 360.
- > **Soziosanitario** arloko titulatu euskalduna naiz, eta esperientzia daukat etxeko laguntza zerbitzuan. Orduka lan egiteko prest egongo nintzateke. Deitu: 635 74 50 83.
- > **Garaje itxia salgai** Ugarkalde auzoko 5-6 atarian. 18m2. Interesatuek deitu: 647515257 / 610751017.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16**  
Abenduak 2, 3, 4, 12, 13, 21, 22, 24, 25 eta 30.

**IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22**  
Abenduak 7, 8, 14, 15 eta 23.

**GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58**  
Abenduak 5, 6, 16, 17, 18, 26 eta 27.

**JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28**  
Abenduak 1, 9, 10, 11, 19, 20, 28, 29 eta 31.



**smk**  
san miguel kooperatiba  
**943 781 217**  
kale barria 8 - 20560 oñati  
www.sanmiguel.coop

**EGUR-LAN**  
AROSZEGIA  
LIMABAR S.A.L.  
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPIZKOA)  
TEL/ FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com  
www.egur-lan.es

R.P. 5.47/15  
**Psicologia Zentroa**  
**ROSA RUEDA**  
Zubillaga Auzoa, 20  
**943 04 74 06**  
psicologia-rrueda@cop.es  
www.psicologiarosarueda.com

ANTSIETATEA  
ESTRESA  
FIBROMIALGIA  
DEPRESIOA...

**Amara igartua**  
**ARKITEKTURA ESTUDIOA**  
-Zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)  
-Diru laguntzen gestioa-Igogailuen proiektuak -Barne dekorazioa-Jarduera lizentziak  
tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati

### \*Beste egunian

Takian-potian entzuten dittugu holako esaldixak:

- \*beste egunian Jone ikusi neben,
- \*beste egunian Pello etorri xakun,
- \*beste egunian M<sup>a</sup> Karmenekin egon nintzan...

Horreik erdarazko 'el otro día' formiaren kalko okerrak dira. Denpora zihaztu bageko ideia hori adierazoteko beste forma honeittara jo bihar dogu:

**-Lehengo egunian / Lehenguan** hauxe entzun neben plazan: ulixa ezkonketan dala. Egixa da?

**-Aurrekuan** egon giñanian horixe komentau nostazun, lanerako diar egin dotsueilla, hala da?

**-Fan zan egunian** autobusaren zain nenguela Miren pasau zan bere mutillarekin

## Hausnarrian

### Hizkuntzia

- 'Guri debekau egin oskuen', esaten daue zaharrak, 'eta hala ta be egin egitten geben! Orain, zuek eztozue egitten, aukera guztiak izanda!'

- 'Geuk be egingo geke', erantzuten dostegu guk, 'bizio arriskutsua balitz edo debekauta balego!'.

'Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako', 2010. Joseba Sarrionandia (moldauta)



## Ez kikilddu, ez lotsatu

### Eregi bentania!

**Leihua:** bentana txikiña. **Bentania:** Leiho haundixa.

Sasue batian, etxietako hormetan argittasuna sartzeko zabalketan ziran bittarte guztiak leiho izenaz izentaitten ziran, baiña denporiagaz bittarte zabalaguak eta haundixaguak egitteko gauza izan ziranian, *leiho* etzan beste berba bat hartu bihar izan euen asmakizun barrixa izentaitteko, hortik dator *bentania*. Orkatzategiko haitzaren goixenian daguen zuluari *Atxuloko bentania edo, Urruxolan, Itsusabeko bentania* be esaten xaugu.

Gauza bera pasau zan *aulki* eta *silla* berbaekin. Bata zan jarleku txikiña, behixak jeisteko ebalten zana eta bestia sukalde edo egongelan jasartekua; euren artian desbardiñak ziranez, bi berba bihar ziran hori adierazoteko. Hortik, batari aulkixa eta bestiari sillia esatiarena. Herrixan sillak egitten zittuana sillerua zan eta, hortik, *Sillero* oiñetako dendiaren izena.

Gaur egunian bardin pasaitten da telefonua eta smartphonarekin, bixak komunikagailluak dira, baiña eztira bardiñak.

Orduan, iñork esaten badotsue "eregi bentania" euskera zelebria dala, **emun azalpena eta ez kikilddu eta ez lotsatu zeure euskeriarekin.**

## Billatu berba honein sinonimuak

- |                        |                     |
|------------------------|---------------------|
| 1. Illoba              | A. Adiskide         |
| 2. Aittajuna/Aittaitta | B. Lehengusu txikia |
| 3. Primo               | C. Lehengusina      |
| 4. Erran               | D. Aitona           |
| 5. Prima               | E. Arerio           |
| 6. Amandria/Amama      | F. Anaia            |
| 7. Lagun               | G. Biloba           |
| 8. Neba                | H. Amona            |
| 9. Etsai               | I. Lehengusu        |
| 10. Bigarren primua    | J. Errain           |

## Nun dago?

Zein auzotan dagoz -etxe sufijuagaz osotutako baserri honeik?

- |               |                            |
|---------------|----------------------------|
| 1. Baketxe    | A. Zubillagan eta Murgixan |
| 2. Kipuetxe   | B. Lezesarrin              |
| 3. Arretxe    | C. Araotzen                |
| 4. Barrenetxe | D. Berezaon                |
| 5. Matietxe   | E. Urribarrin              |
| 6. Goikoetxe  | F. Zubillagan              |
| 7. Goixenetxe | G. Urruxolan               |
| 8. Dolaetxe   | H. Garibain                |
| 9. Makiñetxe  | I. Garibain                |





## Lehenengo Olentzero

**B**errogei urtetik beherako txantxiuarrak normaltzat joko daue era bateko edo besteko **Olentzeroren** bat Oñatin kalerik kale ikustia Gabon eguneko illunkaran edo Arantzazu auzuan arratsaldian. Baiña ezta beti hola izan; ez horixe! Gure artian 1970eko hamarkadiaren hasieran ekin xakon tradiziño bihurtu dan ohitura horri.

Dakituzen lez, datorren urtian beteten dira berrogeta hamar urte Oñatin ikastolia zabaldu zala: *San Migel* izenekua orduan, *Txantxiku* gerora. Eskola horretako andereño-maixu, guraso eta laguntzaille batzuen lanari eskerrak urten eben hemen, 1971n seguruenik, lehenengo Olentzerok. Ordurako beste herri batzuetan be kaleraketan zan.

Dana dala, etzan samurra izan. Batzuek esaten euen Olentzero *jentilla* zala, paganua, eta jaiotzak, belenak, bazterketara eto-rrera. Hori dala eta, pertsonaje mitiko horren jatorrixa eta esanguria esplikaitteko **Jaxinto Fernandez Setien** ekarri zan. *Garoa* zinia beteta egon ei zan Lazkaoko abade euskaltzale haren azalpenak entzuten. Jentia gustora geratu zan, nunbait. Hala eta be, batzuk gehitxuago lasaittu ziran Olentzeroren katamalo edo karetia Bidaurretako monjak egindakua zala jakin eunian.

Argazki honeittan ikusi zeikei orduko Olentzerok eukan itxuria. Banasta gañian jarritta, makilliaz eta farolaz. Bi urtetako fotografixak izango dira: ikazkin zaharra blusa illunakin agerketan dan bixetan honeik dira anderuak: aurrian **Joxe Mari Etxeberria**, Urteazpikokua, ezkerraldian, eta **Ramon Oregi**, Armeruenekua, eskuman; atzekuak, berriz, **Karlos Errasti**, San Antue kalekua, eta **Xabier Egaña**, Kale barriko panaderixakua. Euripeian ziraz jantzittako Olentzero hurrengo urtekua dala emuten dau, 1972kua-edo, eta **Felipe Biain**, Perratzaillienak, eta **Jabier Arabaolaza**, Artxubi-Kurpidek, doiai sorbalda gaiñian. Atzeko ande-ruen arpegixak eztira ikusten. Umiak eztittugu ezagutu. Ia identifikaitten lagunketan doskuzuen!

J. E.

Fotografixak Fernando Lizarralde *Kapok* ateratakuak dira eta guri Euxebi Osak eskuratu dosku. Argibidiak Euxebiri, Eli Igartzabaleri eta Mon Oregiri zor dostegu. Milla esker danoiri!



AMUEBLADORA MONDRAGONESA TALDEAK GABON  
ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE !!!!

**6**  
**urteurrena**  
ESKERRIK ASKO !!



**centro hogar MUEBLES**

ZIGARROLA 1

TEL.: 943 71 10 12

ARRASATE



**BANAK**  
*importa*

ZERKAOSTETA 3

TEL.: 943 71 10 11

ARRASATE



**Sofa**  
**leku**



**koltxoi**  
**leku**

ZIGARROLA 1

TEL.: 943 79 15 03

ARRASATE

**grupo**  
**amuebladora**  
**mondragonesa**

GOGORATU, 60.URTEURRENA DELA ETA AMUEBLADORA MONDRAGONESA  
TALDEAK, BIDAI BAT ZOZKETATUKO DUELA URTE AMAIERAN AURTENGO  
BEZEROEN ARTEAN !!

\*CENTRO HOGAR MUEBLES ,SOFALEKU ETA KOLTXOILEKU DENDETAN.